

## III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

### EBAZPEN BATZORDEA

**Ebazpen Batzordearen 1/2019 erabakia, 2019ko ekainaren 20koa, 1/2019, 2/2019 eta 3/2019 eskumen-arazoei buruzkoa, zeinak Arabako Foru Aldundiak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak planteatu baitituzte, hurrenez hurren, EH Bildu talde parlamentarioak jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa sortzeko egin duen lege-proposamenaren inguruan**

Begoña Basarrate Aguirrek, Ebazpen Batzordeko Idazkariak, Ondorengoa ziurtatzen dut: Ebazpen Batzorde honetan jasotako aurrekarietan honako hauek agertzen direla:

Bilbo hirian, 2019ko ekainaren 20an, Ebazpen Batzordeko Osoko Bilkurak, Juan Luis Ibarra Robles presidente jaunak eta María Carmen Agoués Mendizabal, Javier Balza Aguilera, José Ramón Bengoetxea Caballero, Kepa Bilbao Gaubeka, Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena eta Andrés María Urrutia Badiola kideek osatuta, hartu du honako

#### ERABAKIA

Aztergai dira 1/2019, 2/2019 eta 3/2019 eskumen-arazoak, Arabako Foru Aldundiak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak planteatuak, hurrenez hurren, jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa sortzeko lege-proposamena dela eta (aurrerantzean, LP), zeina aintzat hartu baitzuen Eusko Legebiltzarreko Osoko Bilkurak 2018ko abenduaren 20ko bilkuran, eta 2019ko urtarrilaren 18ko Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen (ELAO, 110. zk.).

Arabako Foru Aldundiak (aurrerantzean, AFA) eskumen-arazo bat (1/2019) planteatu du hauen inguruan: atarikoaren IV. apartatuko hirugarren paragrafoa; 1. artikuluko 2. apartatua; 4. artikuluko 2. apartatua; 5. artikuluko e) letra; 6. artikuluko b), c) eta d) letrak; 7. artikuluko 1. apartatua; 9. artikuluko 1. apartatua; 11. artikuluko lehenengo paragrafoa; 15. artikuluko 3. apartatua; 23. artikuluko 1. apartatuko f) letra; 32. artikulua; 36. artikuluko g) letra; eta 47. artikulua, uste baitu mandatu horiek ez datozela bat Autonomia Estatutuak Autonomia Erkidegoko erakunde komunen eta foralen artean ezartzen duen eskumen-banaketarekin.

Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean, BFA) mandatu horiei berei buruzko eskumen-arazo bat (2/2019) planteatu du.

Gipuzkoako Foru Aldundiak (aurrerantzean, GFA) eskumen-arazo bat (3/2019) planteatu du hauen inguruan: 1. artikuluko 2. apartatua; 4. artikuluko 2. apartatua; 7. artikuluko 1. apartatua; 9. artikuluko 1. apartatua; 15. artikuluko 2. eta 3. apartatuak; eta 47. artikulua, uste baitu mandatu horiek ez datozela bat Autonomia Estatutuak Autonomia Erkidegoko erakunde komunen eta foralen artean ezartzen duen eskumen-banaketarekin.

Txostengileak izan dira Kepa Bilbao Gaubeka jauna, María del Carmen Agoués Mendizabal andrea eta Andrés María Urrutia Badiola jauna, eta Ebazpen Batzordeko Osoko Bilkuraren ahobatezko iritzia adierazi dute.

#### AURREKARIAK

1. 2019ko otsailaren 6an, Ebazpen Batzorde honetan idazki bat sartu zen, Arabako Foru Aldundiak egina, non eskumen-arazo bat planteatzen baitzuen jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa sortzeko lege-proposamenaren inguruan, uste baitzuen urratu egiten dituela Arabako lurralde historikoaren eskumenak.

2. 2019ko otsailaren 7an, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak data horretan bertan egindako idazki batzuk sartu ziren Ebazpen Batzordean, non eskumen-arazo bat planteatzen baitzen lege-proposamen beraren inguruan.

3. 2019ko otsailaren 19an, Ebazpen Batzordeak erabaki zuen izapidetzeko onartzea 1/2019, 2/2019 eta 3/2019 zenbakiekin erregistratutako eskumen-arazoak, Arabako Foru Aldundiarena, Bizkaiko Foru Aldundiarena eta Gipuzkoako Foru Aldundiarena, hurrenez hurren; eskumen-arazoen txostengile izendatzea Kepa Bilbao Gaubeka jauna, María del Carmen Agoués Mendizabal andrea eta Andrés María Urrutia Badiola jauna, haiei baitagokie txandaz; eta Eusko Legebiltzarreko Mahaiari erabakiaren berri ematea eta hura ekimenaren proposatzaileei helaraztea, 20 eguneko epean egoki iritzitako alegazioak aurkez zitzaizaten, Ebazpen Batzordearen Legearen 50.2 artikuluan xedaturikoari jarraikiz.

Saio berean erabaki zen Bizkaiko Foru Aldundiak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Arabako Foru Aldundiak sustatutako arazoen metatze-intzidentea ofizioz hastea, eta, ondorioz, entzundariaren tramitea irekitzea, hamar eguneko epean, prozeduran agerraldia egin dutenei, Ebazpen Batzordea arautzen duen 13/1994 Legearen 31.1 artikuluan xedaturikoari jarraikiz, eta hori ere Eusko Legebiltzarreko Mahaiari jakinaraztea, proposatzaileek horren berri izan dezaten.

4. 2019ko martxoaren 5ean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko zerbitzu juridiko zentraletako legelariak aurkeztutako idazki bat sartu zen Ebazpen Batzordean, non ados agertzen baitzen metatzearekin 1/2019, 2/2019 eta 3/2019 eskumen-arazoak, Arabako Foru Aldundiak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztuak, hurrenez hurren, jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa sortzeko lege-proposamenaren inguruan, eta eskatzen baitzuen Administrazio Orokorra agertutzat hartzea aipatutako eskumen-arazoetan.

5. 2019ko martxoaren 6an, Arabako Foru Aldundiko aholkularitza juridikoaren zerbitzuko legelariak aurkeztutako idazki bat sartu zen Ebazpen Batzordean, non adierazten baitzuen bat egiten zuela Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek planteatutako 2/2019 eta 3/2019 eskumen-arazoekin, eta ados agertzen baitzen 1/2019, 2/2019 eta 3/2019 eskumen-arazoak metatzearekin.

6. 2019ko martxoaren 13an, EH Bildu talde parlamentarioaren bozeramaileak aurkeztutako idazki bat sartu zen Ebazpen Batzordean, non alegazioak egiten baitzituen planteatutako eskumen-arazoen inguruan.

7. 2019ko martxoaren 15ean, Arabako Biltzar Nagusietako legelari nagusiak aurkeztutako idazki bat sartu zen Ebazpen Batzordean, non eskatzen baitzuen egintzat jotzea bertan jasotzen den alegazioa, eta bideratutzat jotzea Arabako Foru Aldundiak helarazitako eta eskatutako izapidea, non ados agertzen baitzen azaldutakoarekin.

8. 2019ko martxoaren 22an, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko zerbitzu juridiko zentraletako legelariak aurkeztutako idazki bat sartu zen Ebazpen Batzordean, non alegazioak egiten baitzituen planteatutako eskumen-arazoen inguruan.

9. 2019ko apirilaren 1ean, Ebazpen Batzordeak erabaki zuen aipatutako eskumen-arazoak metatzeari ekitea, iruditu baitzitzaion nahikoa arrazoi zeudela hori egitea justifikatzen zutenak –hala, 2/2019 eta 3/2019 eskumen-arazoak 1/2019 eskumen-arazoari metatuta geratu zitzaizkion–, eta deliberatzeko, txostenak egiteko eta behin betiko erabakia idazteko irizpideak finkatzea.

Modu metatuan aztertuko diren eskumen-arazoetan izandako aurrekari kronologikoak azaldu, egoki da haietan guztietan emandako argudioen laburpen txiki bat egitea.

LEHENA. AFAk (1/2019) eta BFAk (2/2019) mandatu beren inguruan planteatu dituzte eskumen-arazoak, eta ia-ia argudio berak erabili dituzte, askotan hitzez hitz. Hori dela eta, batera jasoko ditugu, baina egon daitezkeen desberdintasunak eta/edo azalpenak edo gehigarriak zehaztuko ditugu.

Bi erakundeek hauen inguruan garatu dituzte norik bere eskumen-arazoak: atarikoaren IV. apartatuko hirugarren paragrafoa; 1. artikuluko 2. apartatua; 4. artikuluko 2. apartatua; 5. artikuluko e) letra; 6. artikuluko b), c) eta d) letrak; 7. artikuluko 1. apartatua; 9. artikuluko 1. apartatua; 11. artikuluko lehenengo paragrafoa; 15. artikuluko 3. apartatua; 23. artikuluko 1. apartatuko f) letra; 32. artikulua; 36. artikuluko g) letra; eta 47. artikulua.

Biek azpimarratu dute LPak ia-ia hitzez hitz erreproduzitzen duela 7/2018 Foru Legea, maiatzaren 17koa, Nafarroako Foru Komunitatearen jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa sortzekoa.

Aldez aurreko kontu gisa, aldundiek planteatu dute atarikoaren IV. apartatuko hirugarren paragrafoak –eta paragrafo hori lege-proposamenaren 1. artikuluko eta 4. artikuluko 2. apartatuarekin lotzen dute– urratu egiten dituela lurralde historikoen autoantolakuntza-eskumenak, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 37.3.a) artikuluan aitortuak, eta hortik ondorioztatu dute lege-proposamenak planteatzen duen bulegoa sortzea ekarriko lukeen berme-tresna arautzeko Legebiltzarrak duen eskumenak ezin dituela barnebildu, bere eremu subjektiboan, lurralde historikoetako administrazioa eta haren sektore publikoko entitateak, baizik eta mugatu behar duela Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren eremu eskusibora eta haren menpeko erakunde, ente, entitate, fundazio, partzuergo eta enpresa publikoen eremu eskusibora, baldin eta partaidetza handiena edo jabari eraginkorra hari badagokio, zuzenbide publikoak edo pribatukoak izan.

Adibide gisa jarri dute Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen lehenengo xedapen gehigarria; azpimarratu dute LParen zioen azalpenean ez dela aipatzen eskumen-titulurik Legebiltzarrari halako organo bat sortzen uzten dionik; eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren 118/2007 Irizpena aipatu dute, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kargu publikoak dituztenen ekintza- eta jokabide-printzipioen eta haien jardunarekin bateragarriak diren jardueren lege-aurreproiektuari buruzkoa, eta hortik ondorioztatzen dute lurralde historikoek eskumena dutela beren organoen antolaketa, araubidea eta funtzionamendua finkatzeko.

Horri dagokionez, foru-erakundeek eskumen hori garatuz onetsi dituzten zenbait arau-testu zerrendatu eta deskribatu dituzte, hala nola:

a) Gipuzkoako Foru Aldundiaren kasuan, Foru Gobernuaren Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko Erabakia, zintzotasun instituzionalaren sistema onetsi zuena, eta, haren parte gisa, Gipuzkoako Foru Administrazioa eta foru-sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeetako kargu publikodunen eta langile asimilatuen jokabidearen eta jardunbide egokien kodea.

b) 5/2018 Foru Araua, azaroaren 21ekoa, interes-gatazkei eta bateraezintasunei buruzkoa, Bizkaiko Batzar Nagusiek onetsia, non lurralde horretako foru-kargudunen jardunak bete behar dituen printzipio etikoak eta gobernu onarenak jorratu baitziren.

c) Eta, Arabako Foru Aldundien kasuan, Foru Gobernuaren Kontseiluaren 477/2015 Erabakia, azaroaren 3koa, non onetsi baitzen lurralde historiko horretako kargu publikodunen eta sektore publikoko ordezkarien etikaren eta gobernu onaren kodea, bai eta Arabako Biltzar Nagusien 10/2018 Foru Araua ere, uztailaren 11koa, foru-kargu publikoa betetzea arautu zuena.

LPan aurreikusitakoenen antzeko organoei dagokienez, hauek aipatu dituzte:

a) GFAn, Gipuzkoako lurralde historikoko sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordea, martxoaren 1eko 3/2016 Foru Dekretuaren bidez eratua.

b) Bizkaiaren kasuan, azaroaren 21eko 5/2018 Foru Arauak ezartzen duena, arau horrek foru-kargu publikodunei exijitzen dizkien betebeharrak betetzen dituztela zaintzen duen berme-organo bat sortzeari buruz.

c) Eta, azkenik, Arabaren kasuan, Arabako lurralde historikoko gobernukideen eta foru-sektore publikoko goi-kargu publikodunen Etika Publikoko Batzordea, Kontseiluaren irailaren 3ko 477/2015 Erabaki bidez onartua, eta ondoren uztailearen 11ko 10/2018 Foru Arauak aitortua.

AFAk zein BFAk, norik bere foru-araudia babesteko, aipatu dituzte Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta Bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen Arteko Harremani Buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen (aurrerantzean, LHL) 7.a.1) eta 8.1.a) artikulua, eta ondorioztatu dute LPak nabarmen urratzen duela Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 37.3.a) artikulua lurralde historikoei aitortzen dien eskumen eskusiboa beren erakundeen antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari dagokienez.

Aldez aurreko kontu hori azaldu ondoren, bi aldundiek zehatz-mehatz aztertu dute LPtik aurkatu dituzten artikuluetako bakoitza.

#### **1. artikulua 2. apartatua. Xedea eta izaera juridikoa**

“2. Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa sortzen da, EAEko administrazio publikoetako eta horiek parte hartzen duten elkarte eta entitateetako ustelkeria eta iruzurrezko jardunbideak detektatu, aurreikusi, ikertu eta desagerrarazteko, lege honek ezarritako baldintzetan”

Errekurritutako mandatuak “Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko”ei eta “horiek parte hartzen duten elkarte eta entitate”ei egiten dien aipamenak ondorioztarazi die urratu egiten duela Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 37.3.a) artikulutik eta, batez ere, LHLren 37.3.a) artikuluan eta 8.1 artikuluan ezarritakotik ateratzen den eskumen-banaketa sistema, eta berriro erreproduzitu dute arestian aipatutako foru-araudia.

Bi ondorio atera dituzte: batetik, baieztatzen dute foru-organismoek bakarrik xeda dezaketela foru-kargu publikoei eta beren enplegatu publikoei lotutako gaietan agintzen dizkieten zereginak betetzeko behar diren berme-tresnak sortzea, eta, bestetik, LHLn xedaturikoari edozein aldaketa egin nahi izanez gero, “aldaketa hori zuzenean, espresuki eta modu arrazoituan artikulatuko duen” lege baten bidez egin behar dela, Batzorde honen doktrinaren arabera –5/2003, 1/2005 eta 1/2008 erabakietan dago azalduta–.

#### **4. artikulua 2. apartatua. Bulegoaren jarduketa-eremua**

“Honako hau da EAEko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren jarduketa-eremua:

2. Lurralde historikoetako administrazioa eta haren menpeko erakundeak, enteak, entitateak, fundazioak eta enpresa publikoak, baldin eta partaidetza handiena edo jabari eraginkorra hari badagokio, zuzenbide publikoak edo pribatukoak izan. Partaidetza hori % 50ekoa baino txikiagoa baldin bada, bulegoaren jarduketa-eremuak honako hauek soilik hartuko ditu: lurraldeko sektore publikoaren zerbitzu publikoak kudeatzeko jarduerak, herri-lanak egiteko jarduerak eta laguntza- edo hornidura-jarduerak”

AFAk eta BFAk mandatu horrekiko duten jarrera da Foru Administrazioa eta haren menpeko erakundeak, enteak, entitateak, fundazioak eta enpresa publikoak, baldin eta partaidetza handiena edo jabari eraginkorra hari badagokio, ez zirela sartu behar “2. apartatuan”; hala, aplikazio-eremua administrazio autonomikoarenera eta haren sektore publikoko entitateenera mugatuko zen, eta, hala badagokio, EAEko tokiko entitateenera eta haren sektore publikoko entitateenera.

Ondorio hori ateratzeko, berriro aipatu dituzte Espainiako Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarria eta Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 3. eta 37. artikulua. Era berean, Foruetako eta haien Sektore Publikoko Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen 1/2014 Legearen lehenengo xedapen gehigarria aipatu dute.

BFAk aipatu du, halaber, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2016ko Legearen 35.3 artikulua, eta ondorioztatu du mandatu hori, itxuraz, kontraesanean dagoela LParen 4.2 artikuluekin, ez baitu errespetatzen toki-erakundeen autoantolakuntza-ahala.

Laburbilduz, baieztatzen dute ezen, foru-aldundiek sortutako organoek eskumen-banaketa errespetatzen duten heinean, LP honek sortzen duen bulegoak, bere aplikazio-eremu subjektiboa lurralde historikoetako administraziora eta foru-sektore publikoko entitateetara hedatzen duenez, hustu egiten dituela foru-eskumenak, eta bateraezina dela Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuan jasotako eskumen-banaketarekin.

#### **5. artikuluko e) letra. Eginkizunak**

Honako hauek dira EAEko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren eginkizunak:

....

e) Kontratazio publikoa arautu eta gainbegiratzea.

Proiektuari egin dion inpugnazioak zera du oinarritzat: Espainiako Konstituzioaren 149.1.18 artikulua arabera, Estatuak eskumen eskusibo duela kontratazio administratiboaren oinarritzat legedia emateko, eta EAERI dagokiola hura garatu eta gauzatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 11.b artikulua arabera; eta, Sektorre Publikoko Kontratuaren 9/2017 Legearen 332. artikuluan xedaturikoaren arabera, badago horretarako espresuki sortutako organo bat, hura gainbegiratzea dagokiona: Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independentea, baina horrek ez du esan nahi autonomia-erkidegoek ezin dutenik beren gainbegiratze-bulego propioak sortu.

#### **6. artikuluko b), c) eta d) letrak. Prebentzio-eginkizuna**

EAEko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren prebentzio-eginkizunak honako jardura hauek hartuko ditu:

b) Jokabide-kode etiko berri bat garatzea, zeinaren bidez orain arte daudenetan sakonduko den eta ezarriko den zein arau etiko eta zer jokabide-arau bete beharko dituzten Jaurlaritzako kideek, goi-kargudunek, behin-behineko langileek, sektore publikoa osatzen duten entitateetako zuzendaritza-kideek eta hautetsiek, zeinen jarduerak honako printzipio hauek zaindu beharko dituzten: objektibotasuna, zintzotasuna, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, konfidentzialtasuna, gardentasuna, eredu-garritasuna, zerbitzu publikoaren alde lan egitea, eraginkortasuna, onestasuna, austeritatea, genero-berdintasunarekiko errespetua eta kultura- nahiz hizkuntza-ingurunearen eta ingurumenaren errespetua, sustapena eta babesa. Legebiltzarrak lege maila duen arau batekin onetsiko du kodea.

c) Administrazio publikoan jokabide-kode etikoa eta jardunbide egokien gida aplikatu daitezkeen sustatu, bultzatu eta bermatzea, zerbitzu publikoak kalitate hobearrekin ematen laguntzeko xedez.

d) Jardura eta Interesen Erregistroa kudeatzea eta jardueren eta interesen aitortzearen emandako informazioa egiaztatzea, gatazka-kasuak ebaztea eta kargu publikoen ondasunen gehikuntza moduan gertaturiko aldaketan justifikazioa egiaztatzea. Horretarako, bulegoak bere ekimenez jardungo du, eta ekimena abiarazteko arrazoen txosten bat egingo du. Halaber, zilegi izango du aitortutako informazioa egiaztatzea eta gatazka-kasuak ebaztea EAEko toki-administrazioetako goi-kargudunen eta kargu hautetsi publikoen bateraezintasunen araubideari dagokionez, baldin eta toki-administrazioetako organo eskudunak horretarako erabakia hartu badu, eta kasuko hitzarmena formalizatu ondoren.

AFAk eta BFAk adierazi dute eginkizun horiek AFAk eta BFAk sortutako etika-batzordeei daudela esleituta, edo Bizkaiaren kasuan aurreikusten den berme-organoiari. AFAk gaineratu du ezen, hala badagokio, jardura eta interesen erregistroaren eta bateraezintasun-erregimenaren kudeaketa Aldundiko idazkaritza nagusiaren zerbitzuari dagoela esleituta, 10/2018 FAREN

33. artikulua arabera, zeinak foru-kargu publikoaren jarduna arautzen baitu, eta, horrenbestez, eginkizun horiek haren eskumenak inbaditzen dituztela, baldin eta bulego horren eginkizunak ez badira mugatzen Euskadiko Autonomia Erkidegoko eta haren sektore publikoko administrazioaren kargudun publikoetara, edo, d) letraren kasuan, Eusko Jaurlaritzako kideetara eta administrazio horretako goi-kargudunetara edo administrazio horretako sektore publikoko zuzenbide pribatuko enteetako edo fundazioetako zuzendarietara.

#### **7. artikuluko 1. apartatua. Ikerketa-eginkizuna**

1. EAEko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren ikerketa-eginkizunak honako jarduketak hauek hartuko ditu, besteak beste:

a) Jokabide irregularrei buruzko ikerketak egitea, jokabide horiek interes-gatazka sorbaditzakete agintariengan, goi-kargudunengan eta administrazio publikoen zerbitzuko nahiz haien gehiengoaren partaidetza edo jabari eraginkorra duten fundazio eta enpresa publikoen zuzenbide publiko nahiz pribatuz eraenduak direla zerbitzuko langileengan, kode etikoaren aurkakoak badira edo EAEko sektore publikoari zuzenean nahiz zeharka kalte ekonomikoa edo ospe-galera ekar badiezaiokete.

b) Sektore publikoaren zerbitzuko langileen berriazko eginkizunetatik heldu diren informazioak onura pribaturako erabili izana eta ondasun eta baliabide publikoak norberaren nahiz hirugarrenen onurarako baliatu izana ikertzea.

c) Berdintasun-, merezimendu-, publikitate- eta gaitasun-printzipioak urratu izana ikertzea, sektore publikoko lanpostuak betetzean, nahiz gehiengodun partaidetzako edo jabari eraginkorreko zuzenbide publiko nahiz pribatuz eraenduak direla fundazio eta enpresa publikoetako lanpostuak betetzean.

d) Ente instrumentalei agindutako mandatuen exekuzioei eta lege honetako 4. artikuluko 1., 2. eta 3. zenbakietan adierazitako subjektuetakoren batek lizitatu eta esleitutako kontratu administratiboaren exekuzioei jarraipena eta egiaztapena egitea.

Foru-erakundeek argudiatu dute eskumenak inbaditzen direla, eta, hala, urratu egiten dela Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 37.3.a) artikuluan eta LHLren 7. artikuluan xedaturikoa, deskribatutako eginkizunak foru-organoei baitagozkie.

#### **9. artikuluko 1. apartatua. Babes-eginkizuna**

1. EAEko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak zainduko du lege honen 4. artikuluko 1., 2. eta 3. zenbakietan jasotako erakundearen zerbitzuko langileek beren eginkizunak lege ezarritako moduan bete ahal izan ditzatela.

Bi aldundiek diotenez, eginkizun hori lurralde historikoetako administrazioaren eta haren sektore publikoaren zerbitzura dauden langileei hedatuz gero, urratu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 37.3.a) artikuluan xedaturikoa; eta, horrez gain, 6/1989 Legea aipatzen dute, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa, eta lege-corpus horren beraren 69.1 artikulua.

#### **11. artikuluko lehenengo paragrafoa. Laguntza eman beharra**

Beren eginkizunak garatu ahal izateko, administrazio publikoek eta lege honetako 4. artikuluan adierazitako entitateek laguntza eman beharko diote EAEko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoari, honek behar duen orotan eta ikertzen ari den gertakariekin zerikusia duen orotan. Ildo horretan, eta jardueren proportzionaltasunaren printzipioaren baitan, bulegoak administrazio publiko edo/eta entitate horien bulegoetarako sarbidea eta haiek daukaten informazioa eskuratzeko bidea izango du.

Berriro ere, mandatu horren 4. artikulua eraginez, lurralde historikoek lagundu egin behar diote bulego berri horri, zeinaren jarduketak-eremuak EAEko administrazioa eta haren sektore publikoko entitateetara mugatuta egon behar baitu, bi aldundiek behin eta berriz aipatutako irizpidearen arabera.

**15. artikuluko 2. (Gipuzkoako Foru Aldundia) eta 3. apartatuak. Aurretiazko jarduketak**

2. Jarduketak abiarazteko erabakia hartu aurretik, bai eta egiaztatze eta ikertze faseetan ere, jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten administrazioen eta sektore publiko instrumentala osatzen duten entitateen edozein zentrotan bertaratu ahalko da, behar diren datu guztiak egiaztatzeko, dokumentazioa edo espedienteak aztertzeko eta egoki deritzen elkarrizketa pertsonal guztiak egiteko.

3. Lege honetako 4. artikuluan ezarritako jarduketa-eremuko entitate publiko eta pribatu guztiak behartuta daude jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoari haren eginkizunak betetzeko beharrezkoa den informazio guztia ematera. Informazio hori aurretiaz ezarritako betebeharrak izango da; eta ezin izango da eskatu den helburutik haratago erabili. Informazio erreserbatuaren izaera izango du eta dokumentazioa bere jatorrira itzuliko da, hura erabiltzeko beharra bukatzen denean.

Foru-aldundientzat, aplikatzekoak dira aurreko artikuluan egindako kontsiderazioak, ez baitira uzten lurralde historikoetako administrazioa eta haren menpeko erakundeak, enteak, entitateak, fundazioak eta enpresa publikoak, baldin eta partaidetza handiena edo jabari eraginkorra hari badagokio, haren aplikazio-eremutik kanpo, 4. artikulua dioenaren arabera, urratu egiten baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 37.3.a) artikuluan xedaturikoa.

**23. artikuluko 1. apartatuko f) letra. Ebazpena/32. artikulua. Gomendioak**

1. Izapidetzea bukatutakoan, instrukzioaz arduratzen den pertsonak honako elementu hauek ebatzi ahalko ditu:

f) Administrazioei eta entitate publikoei gomendio arrazoituak zuzentzea, irizpideak aldatu, deuseztatu eta gehitzeko iradokizunarekin, hobetzeko modukoak diren disfuntzio edo praktika administratiboak saihesteko xedez, topatutako jokabide irregularren kasuetan eta arrisku-alorretan.

**32. artikulua. Gomendioak**

Bulegoak ofizioz nahiz 4. artikuluan adierazitako subjektuetako edozeinek eskatuta egindako proposamenek gomendio izaera edukiko dute. Gomendioon helburua izango da arrisku egoerak edo jokabide desegoki zein zintzotasunaren aurkakoak gainditzea. Aipatutako subjektuek zuzenean bidaliko dizkiote bulegoari gomendio horiek.

Arabako eta Bizkaiko foru-aldundientzat, 23. artikuluko f) letrak urratu egiten du Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 37.3.a) artikuluan xedaturikoa, modu generikoan aipatzen baititu administrazioak eta erakunde publikoak.

32. artikulua gauza bera egiten du, bulegoak egiten dituen proposamenak 4. artikuluan definitutako subjektuetako edozeini bidaltzen baitizkio, foru-administrazioak bere berme-organo propioak sortzeko duen ahalmena ezagutu gabe.

**36.1 artikuluko g) letra. EAeko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren zuzendaritzaren eginkizunak**

1. Zuzendaritzak eginkizun hauek izango ditu:

g) Jardueren Erregistroa kudeatzea.

Aipaturiko aldundien ustez, Legebiltzarrak ez du eskumenik lurralde historiko bakoitzari dagokion kargu publikodunen eta foru-aldundiko goi-kargudunen Jardueren Erregistroa kudeatzeko. Arabaren kasuan, foru-kargu publikoen jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauak Aldundiaren idazkaritza nagusiaren zerbitzuari esleitzen dio. Bizkaiaren kasuan, interes-gatazkei eta bateraezintasunei buruzko azaroaren 21eko 5/2018 Foru Arauak berme-organoari esleitzen dio.

**47. artikulua. Erantzukizuna**

Arau-hausteen erantzule dira, baita ez-betetze soilaren mailan ere, lege honetan tipifikatutako egite edo ez-egiteetan erortzen diren agintariak, zuzendaritza-kargudunak eta 4. artikuluan adierazitako entitateen zerbitzuetako langileak.

Berriro ere, ez dituen bere aplikazio-eremutik kanpo uzten foru-administrazioak eta haren sektore publikoko entitateak, 4.2 artikuluan deskribatuak, foru-aldundiek argudiatu dute urratu egiten dela Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 37.3.a) artikulua, foru-organoei baitagokie eskumen eskusiboa beren erakundeen antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari dagokienez.

BIGARRENA. GFAk planteamendu orokor batekin hasi ditu bere alegazioak, non adierazten baitu lege-proposamena Nafarroako Foru Erkidegoko Jardunbide Egokien Aldeko eta Ustelkeriaren Kontrako Bulegoa sortzeko maiatzaren 17ko 17/2018 Foru Legean oinarritu dela argi eta garbi; izan ere, hitzez hitz erreproduzitzen ditu haren mandatu gehienak.

Adierazi du atarikoan ez dela aipatzen eskumen-titulurik lurralde historikoetako administrazioari proposatutako legea aplikatzen uzten dionik, eta baieztatu du LPak urratu egiten dituela Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 37.3.a) artikulua eta LHLren 7.a).1 eta 8.1.a) artikulua.

Ebazpen Batzordearen abuztuaren 1eko 1/2016 Erabakiaren lehenengo zuzenbideko oinarriari buruz ari da, eta, ondoren, adierazi du Gipuzkoako lurralde historikoan jada badagoela foru-sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordea, martxoaren 1eko 3/2016 Foru Dekretuak sortua eta arautua, eta Foru Gobernuaren Kontseiluak onetsitako jokabide-kodeak zerrendatu ditu.

Jarraian, zalantzan jarritako mandatuak zehaztu ditu.

LParen 1.2 eta 4.2 artikuluei –jada transkribatuak– dagokienez, baieztatu du ezin dela sartu lurralde historikoetako administrazioa bulegoaren jarduketa-eremuan, bestela inbaditu egingo bailitzateke lurralde historikoek beren erakunde propioen antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari dagokienez duten eskumen eskusiboa.

7.1 eta 9.1 artikuluei dagokienez, baieztatu du urratu egiten dituztela lurralde historikoen eskumenak, LParen 4.2 artikulua dioenaren arabera. Gauza bera esan du 15.3 eta 47. artikuluei dagokienez. Azkenik, 15. artikuluko 2. apartatuari dagokionez, “Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten administrazioak eta sektore publiko instrumentala” adierazpide generikoa erabiltzeak, lurralde historikoetako administrazioak kanpoan utzi gabe, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 37.3.a) artikulua urratzea dakar, GFAREN iritziz.

HIRUGARRENA. Eusko Jaurlaritzak (aurrerantzean, EJ) bere idazkian egin dituen alegazioek –2019ko martxoaren 22an sartu ziren– helburu dute Ebazpen Batzordeak adieraz dezan LPa bat datorrela erakunde komunaren eta foru-erakundearen arteko eskumen-banaketarekin, zeina Euskal Herriko Autonomia Estatutuan eta LHLn baitago ezarria.

Hasteko, “foraltasunaren gune ukiezin”tzat jotzen den horren esparrua zehaztu dute, eta, ondoren, aztertu dute ea LPan zalantzan jarritako mandatuek hori urratzen duten. Lehenengorako, Ebazpen Batzordearen 1/2016 Erabakira igortzen da, eta foru-aldundien argudioak laburbiltzen ditu, non adierazten baita Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen 1/2014 Legeak teknika legegile jakin bat hautatzeak ez duela salbuesten Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuarekin eta LHLrekin bateragarriak diren beste batzuk aplikatzea.

Bestalde, iruditzen zaio foru-aldundiek hartu dituzten ekimenak bateragarriak direla proposatutako bulegoarekin.



EJren iritziz, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 373.a) artikuluko eskumenak –artikulu horretan foraltasunaren gune ukiezina barnebiltzen da– lotuta egon behar du lurralde historikoen erakunde propioen definizioarekin, EAE osatu aurreko errealtatearen adierazpen gisa, eta baieztatu du foru-aldundiek sortutako batzordeak eta organoak ezin direla identifikatu erakunde propioen kontzeptuarekin –horretarako, Aholku Batzorde Juridikoaren 129/2015 Irizpena aipatu du–.

Aldiz, baieztatu du LPa gehiago sortu dela Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuko 10. artikuluko 2., 6. eta 24. apartatuetan EAEn mesedetan ematen diren eskumenetik; hala, legegileak eredu eta estandar komun bat ezartzen du Autonomia Erkidego osoan, “Administrazioko jokabide etikoa”ren ondasun juridiko berria defendatu eta bermatzeko. Foru-aldundien irizpideari jarraituko balitzaio, EJren iritziz ez ziratekeen posible izango zenbait erakunde, hala nola Kontu Auzitegia, Arartekoa, Lehiaren Euskal Agintaritza eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa.

EJrentzat, LPan aurreikusten den organoa independentea da edozein administrazioerikiko, Eusko Legebiltzarraren inguruan jarduten du, eta, ikuspegi horretatik, ez dio eragiten foraltasunaren gune ukiezinari; jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak, berriz, bat egiten du kontrol- eta berme-mekanismoekin, lehendik dauden egiturak hustu gabe. EJrentzat, foru-aldundiek aurkatutako mandatu guztien eztabaidaren muinak LParen 1.2 eta 4.2 artikuluetan du oinarria, 5.e) artikulua izan ezik, zeina kontratazio publikoa arautu eta gainbegiratzeko eginkizunari buruzkoa baita, eta horrek ez baitu loturarik erakunde komun eta foru-organoen artean eskumenak banatzeari buruzko eztabaidarekin.

LAUGARRENA. EH BILDU talde parlamentarioak egin dituen alegazioek helburu dute Ebazpen Batzordeak alegaziook aintzat har ditzan, LParen izapidetze parlamentarioari berrekiteko eta hura ahal bezain laster onesteko xedez.

Hasteko, LParen testuingurua eta edukia aztertu ditu, eta adierazi du haren erreferentzia nagusia dela 7/2018 Foru Legea, maiatzaren 17koa, Nafarroako Foru Komunitatearen jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa sortzekoa; eta beste autonomia-erkidego batzuetan dauden antzeko beste organismo batzuk aipatu ditu.

Jarraian, LParen oinarriak eta erreferentzia juridikoak epigrafearen barruan, beren jardueraren zintzotasuna bermatzeko EAEn dauden kontrol-organismoetako batzuk deskribatzen ditu, eta ondorioztatzen du eragile bakar batek egon behar duela, jardunaren zintzotasunean sakonduko duena eta dauden baliabideen informazioa eta zereginak bateratuko dituen, ez baitira behar bezain eraginkorrak izan.

Hortik aurrera, mandatu bakoitzari egin dizkion alegazioak garatzen ditu.

1.2 eta 4.2 artikuluei dagokienez, haren argudio nagusia da ez dela LParen helburua lurralde historikoen eskumenak hustea, baizik eta erakunde batzuen eta besteen arteko koordinazioan eta lankidetzan sakontzea, informazioa truka dezaten.

5. artikuluko e) apartatuari dagokionez –kontratazio publikoari buruzkoa–, lehendabizi gogorarazten du EAEn dagokiola kontratazio publikoaren arloko oinarriko legediaren lege-garapena, bai eta sektore publikoaren antolamenduaren garapena ere, 3/1979 LOren 10.24 artikulua eta 11. artikuluko b) apartatuaren arabera; eta, ondoren, baieztatzen du Sektore Publikoko Kontratuari buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak autonomia-erkidegoen esku uzten duela kontratazio publikoaren zintzotasuna bermatuko duen bulego bat edo antzeko baliabideak eratzeko eskumena –eta horixe egiten da proposatutako bulegoarekin–. Irizpide hori erreproduzitu egiten da, LParen 7.1 artikulua harira.

6. artikuluko b), c) eta d) apartatuei dagokienez, berriro esaten du LParen helburua ez dela lurralde historikoen ustelkeriaren aurka dituzten ekimenak mugatzea, baizik eta lankidetzan bateratzea, koordinatzea eta hari norabide bat ematea.

LParen 9.1 artikuluari egindako alegazioek berriro sakontzen dute Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuko 11.24 eta 11.b) artikuluek EAERI ematen dioten eskumenean, eta adierazten dute LParen helburua dela erakunde batzuek eta besteek duten informazioa trukitzea, batzuk besteekin koordinatzea eta elkarren artean neurriak hartzea.

Legearen xede hori erreproduzitu egiten da, LParen 11.1 eta 15.3 artikuluei dagokienez, eta, beren argudioak indartzeko, alegaziogileek erakunde batzuk aipatu dituzte, haien ustez LParen printzipio beren pean daudenak, hala nola Kontuen Euskal Epaitegia, Arartekoa eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa. Haien guztien helburua, proposamena egin duen talde parlamentarioaren arabera, informazioa da, eta lankidetzan jardutea, konfidentzialtasun-irizpideari jarraikiz, eta LHL inola ere urratu gabe.

Ondoren, lehenengo apartatuko 23. artikuluko f) azpiapartatua eta 32. artikulua aztertzen ditu, eta, horiei dagokienez, iruditzen zaio ezen, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuko 10.24 artikuluari eta 11.b) artikuluari jarraikiz, Autonomia Erkidegoak erantzukizun zuzena duela sektore publikoa hobetzeko eta sendotzeko bitartekoak jartzean, baina gomendioaren izaerak ez duela nahitaezkoztat jotzen proposatutako neurria, eta, hortaz, halakorik egon ezean, ezin dela eskumen-gatazkarik egon.

LParen 36.9 artikuluari dagokionez, antzeko argudioak ematen ditu, eta adierazten du haren xede bakarra dela lurralde-erregistroetan jasotako informazioa bateratzea, eta EAEn dagoen egoeraren diagnostiko zuzen eta zehatz bat egitea.

Azkenik, talde parlamentarioaren esanetan, 47. artikulua bat dator eskumen-banaketaren eskemarekin, 3/1979 LOren 10.24 eta 11.b) artikuluetan oinarrituta, eta arau-hausteak eta proposatutako zehapen-neurriak lurralde historikoekin eta gainerako erakundeekin lankidetzan hartuko dira, lurralde bakoitzaren eskumenak errespetatuz.

Bukatzeko, EH Bildu talde parlamentarioak gogorarazi du Eusko Jaurlaritza LPa aintzat hartzearen alde agertu zela, eta ebazpen-txostenean ez zela ikusi LHLko eskumenak urratzen zirenik; Legebiltzarrean ordezkaturik dauden gainerako alderdi politikoetako batek ere ez zuen halakorik ikusi 2018ko abenduaren 20ko osoko bilkuran, non eztabaidatu baitzen LPa aintzat hartzea eta dagokion prozedura parlamentarioari ekitea.

Ebazpen Batzordeko Osoko Bilkurak 2019ko ekainaren 20rako jarri zuen erabaki hau eztabaidatzeko eta onesteko data.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENA. JARDUNBIDE EGOKIEN ALDEKO ETA USTELKERIAREN KONTRAKO BULEGOA SORTZEKO LEGE-PROPOSAMENEN 1. ARTIKULUKO 2. APARTATUARI ETA 4. ARTIKULUKO 2. APARTATUARI BURUZKO AUZIEN GAINEKO ERABAKIA.

Foru-aldundiek azaldutako argudio juridikoak irakurrita, EH Bildu talde parlamentarioa eta Eusko Jaurlaritza lehenengo ondorio batera iritsi dira: erabaki honen funtsezko oinarria, aurkatutako artikuluei dagokienez, izango dela zer irismen emango zaion lege-proposameneko 1. artikuluko 2. apartatuaren idazkerari, eta, bereziki, 4. artikuluko 2. apartatuari, zeinak jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren jarduketa-eremuaren barruan sartzen baititu lurralde historikoetako administrazioa eta haren menpeko erakundeak, enteak, entitateak, fundazioak eta enpresa publikoak, baldin eta partaidetza handiena edo jabari eraginkorra hari badagokio, zuzenbide publikokoak edo pribatukoak izan.

Foru-aldundien iritziz, administrazio horiek sartzeak inbaditu egiten du lurralde historikoek beren erakunde propioen antolaketan, araubidean eta funtzionamenduan duten eskumen eskusiboa, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 37.3.a) artikuluan eta LHLren 7.a).1 artikuluan jasoa; aldiz, Eusko Jaurlaritzari iruditzen zaio mandatu horiek ez diotela eragiten foraltasunaren gune ukiezinari, zeinari baitagokio aipaturiko mandatu autonomikoa, 1/2016 Erabakian adierazi zenez.

Bestalde, foru-aldundiei iruditzen zaie xedea eta jarduketa-eremua hain zabalak izateak eta aurreikusitako bulegoaren eginkizunak eta osaera zehatz-mehatz arautzeak urratu egiten duela Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuan jasotako eskumen-banaketaren sistema, eta, horrenbestez, lurralde historikoen autoantolakuntza-eskumenetan eskua sartzea litzatekeela, inolako eskumen-titulurik egon gabe Legebiltzarrari hori egiten uzten dionik; aldiz, Jaurlaritzaren ordezkartzaren ustez, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10. artikuluko 2., 6. eta 24. apartatuek, konstituzio-jurisprudenziari jarraikiz, EAEn esleitzen dizkioten eskumenen ondorio da LPa, EAEn estandar homogeen bat sortzeko, Administrazioaren jokabide etikoaren ondasun juridiko berria defendatu eta bermatuko duena, hura egungo errealitate sozialera egokituz.

Azkenik, EH BILDU talde parlamentarioaren alegazio guztietan nagusi den oinarritzko ideia da LParen helburua dela administrazio publiko guztien arteko koordinazioa eta lankidetzaren sustatzea, lurralde historikoen eskumen propioei eragin gabe.

Batzorde honi dagokio erabaki bat hartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 37.3.a) artikulua eta Estatu beraren 10. artikulutik arestian aipatutako apartatuen arteko loturari buruz, eta, iristen den ondorioetatik abiatuta, erabakitzea ea lurralde historikoak proposatzen den bulegoaren jarduketa-eremuaren barruan sartzea bat datorren Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuan eta LHLn jasotako eskumen-araubidearekin –bi araudiok izan behar dute, nahitaez, gure erreferentziazko araudi-esparrua–. Erantzuna bi faktoreen arabera izango da:

a) Batetik, zer irismen ematen zaion erakunde komunek egiten duten lan legegileak izan dezakeen eraginari, lurralde historikoen eskumen-esparru propioaren barruan.

b) Eta, bestetik, eskumen-esparru hori zehaztu ondoren, ea bulegoari esleitzen zaizkion eginkizunak eta ematen zaizkion ahalak bat datozen ala ez harekin.

Planteatutako gatazkari erantzuna emateko bidean, kontuan izan behar da, alde aurretik, zer doktrina gailendu den Batzorde honek aurretik hartutako erabakietan –doktrina horren zati bat gogorarazten da esku hartu duten administrazioek egindako alegazioetan– eta aplikatzekoa litzatekeen jurisprudenzia esanguratsuenean. Hala, ondorioak oinarritzeko gako batzuk izango genituzke, ahaztu gabe ezen, aipaturiko estatu-mandatuarekin batera, aintzat hartu behar direla Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 3. artikulua, zeinak aukera ematen baitie lurralde historikoei beren antolaketa eta autogobernu-erakunde propioak gorde, berrezarri eta eguneratzeko –mandatu hori hertsiki lotuta dago Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 24.2 artikulua, zeinak lehenengora igortzen baitu, lurralde historikoek beren foru-erakundeak gorde eta antolatzearen gaitasunari dagokionez–, eta estatu-corpus beraren 37.1 artikulua, zeinak lurralde historikoetako foru-organoei esleitzen baitie haietako bakoitzaren araubide juridikoaren pean jarduteko gaitasun juridikoa.

Administrazio publikoen artean nahitaez egon behar duen lankidetzari eta elkarmenpeko-tasunari dagokionez aldarrikatuko den malgutasun berari eutsi behar zaio pentsatzerakoan administrazio publikoek gai izan behar dutela bizitzea egokitu zaien errealitate sozialera egokitzeko. Bestela, eraginkortasunaz gabetuko litzateke haien funtzionamendua, ostrazismora kondentatuko lirateke, eta, guri dagokigunean, urratu egingo litzateke Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 3. artikulua ematen dien eskumena beren araubide juridiko instituzionala eguneratzeko.

Beraz, estatu-testuan esplizituki aitortzen zaie foru-administrazioei ahalmena dutela beren kabuz finkatzeko zer araubide juridikoren arabera arautuko dituzten beren antolaketa, araubidea eta funtzionamendua, eta nola ekingo dioten hura eguneratzeari.

Oinarri juridiko horri nabardurak egin dizkio doktrina juridiko-konstituzionalak, erakunde-bermearen kategoriaren bidez, zeina 1981eko abuztuaren 13ko 32/1981 Epaian hartzen baita, eta azaroaren 6ko 198/2012 Epaian laburbiltzen baita, eta zeinaren helburua baita, funtsean, Konstituzioak aitortzen dituen erakunde jakin batzuk babestea, legegileak kendu edo desnaturalizatu

nahiko balitu ere. Hala ere, legegilearekiko babes hori, aipaturiko epaietan dagoen konstituzio-doktrinatik ondorioztatzen denez, ez da erabatekoa, ez baitu ziurtatzen eduki jakin bat edo eskumen-esparru jakin eta estatiko bat, baizik eta haren helburua baita dagokion erakundea ezagutzeko modukoa izatea kontzientzia sozialak garai eta leku bakoitzean hari buruz duen irudiarentzat, 1981eko epaitik ondorioztatzen denez, betiere kontuan izanik, apirilaren 26ko 76/1988 Epaiaren 4. OJk 32/1981 Epaiak aipatuz adierazten duenez, "...berriz ere aplikatzekoak direla, honi dagokionez, 32/1981 Epaiaren hitzak, baieztatzen dutenak erakunde-bermea ezezaguna dela erakundea mugatua denean, eta, horrenbestez, ia ez zaiola uzten erakunde gisa benetan existitzen, eta izen huts bihurtzen dela (3. OJ)“.

Ez dago sobera gogoraraztea administrazio-antolaketa printzipio gakoetako bat dela eskumena ez erabiltzearen printzipioa, zeinaren bidez ordenamendu juridikoak organo edo entitate administratibo bakoitzari esleitzen baitizkio ahalmen, botere, esleipen eta erantzukizun batzuk. Printzipio hori eboluzionatuz joan da; izan ere, hasieran, zurruna eta estatikoa zen, eta hori bateraezina zen jardun administratiboak izan behar duen eraginkortasunarekin; gaur egun, ordea, malgua eta dinamikoa da, kontuan izanik antolaketa administratiboaren beraren beharrak, administrazio batzuen eta besteen arteko harremana sustatuz.

Arestian aipatu den erakunde-bermearen kontzeptu hori –haren ezaugarri nagusiak 1981. urtean zehaztu ziren–, foru-lurraldeei dagokienez, 1988ko maiatzaren 25eko 76/1988 Epaiak islatu zen, zeinak, batez ere seigarren oinarri juridikoan, azpimarratu baitzuen Espainiako Konstituzioaren 1. xedapen gehigarriak bermatzen duela foru-araubide bat egotea, eta, horrenbestez, foraltasunaren edukiak zaindu egin behar duela foru-araubide tradizionalaren irudia, bai haren antolakuntza-ezaugarriei dagokienez, bai haren botere-esparru propioari dagokienez. Hala, berme horrek, foru-lurraldeei dagokienez, eskumen konkretuen sorta jakin bat zehazten ez badu ere, babestu egiten du, murriztu ezineko gutxieneko gisa, "lurralde historikoen foru-araubide tradizionala islatzen duen lurralde-autogobernuaren araubide bat" (6. OJ).

Hortik dator foraltasunaren gune ukiezinaren kontzeptua, 1/2016 Erabakian gogorarazia, Euskal Autonomia Erkidegoko barne-antolaketa instituzionalari buruzko lege-proposamenari dagokienez, zeinak, beste mandatu batzuen artean, Euskal Autonomia Erkidegoaren Autonomia Estatutuaren 3. artikulua eta 24.2 artikulua –jada aipatu dira– jasotzen baititu, eta 37.1 artikuluan islatzen baita –hura ere jorratu dugu–, zeinaren bidez lurralde historikoetako foru-organoei haiek bakoitzaren araubide juridiko propioaren pean jardungo baitute.

Foraltasunaren gune ukiezin horrek jasotzen du lurralde historikoen erakunde-diseinua, eta, bai bere konfigurazioan, bai erakunde batzuen eta besteen arteko harremanak arautzen dituzten arauetan, murriztu ezineko nukleoa da, ezin gaindituzko muga bat, bai Estatuko legegilearentzat, bai erkidegokoarentzat.

Hala, elkarrekin kontraesanean dauden bi arautegi ditugu:

a) Batetik, daukagun esparru juridikoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 37.3.a) artikuluan, eskumen eskusiboa ematen die foru-organoei, beren lurraldearen barruan, beren erakundearen antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari dagokienez.

Mandatu horrek LHLren 7.a).1 artikuluan du lege-garapena, zeinak lurralde historikoetako foru-organoei eskumen eskusiboa ematen baitie foru-organoen antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari dagokienez, bai eta 8.1.a) artikuluan ere, non ezartzen baita ezen, lurralde historikoen eskumen eskusiboko arloetan, horiek araugintza-ahala dutela, eta beren foru-organoei ateratako arauak direla lehenetsunez aplikatzekoak, beste edozein arauen aldean.

Hala, Autonomia Erkidegoko erakunde komunak dira eskudunak Estatutuaren arabera Autonomia Erkidegoari dagozkion eta lurralde historikoetako foru-organoei aitortu edo esleitzen ez zaizkien arlo guztietako legeak egiteko eta haiek betearazteko (LHLren 6.1 art.).

b) Eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10. artikuluko 2., 6. eta 24. apartatuetatik eta horien inguruan egindako konstituzio-doktrinatik ondorioztatzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak ez duela konfiguratu foru-organoen antolakuntza-autonomia jokabide estanko gisa, legegile autonomikoaren lanarekiko guztiz erresistentea, zeinak eskumen eskusiboan baitu bere autogobernu-erakundearen antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari dagokienez, aipatutako 2. apartatuak dioen bezala. Hala, aitortzen da Legebiltzarrak esku har dezakeela, foru-organoen antolakuntza-autonomiaren barruan, estandar komun eta homogeen bat bilatzen EAEn dauden administrazio publiko guztientzat, betiere ez badiu eragiten foraltasunaren gune ukiezinari; izan ere, gutxieneko hori gabe, desagertu egingo litzateke foraltasunaren irudia bera, eta irudi horrek zaindu egin behar ditu, arestian aipatuenez, bere antolakuntza-ezaugarriak zein bere botere-esparru propioa.

Azken artikuluko horri buruz ere zenbait irizpen eman ditu Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak, zeinak behin eta berriz adierazi baitu foru-organoen antolakuntza-autonomia ezin dela ulertu legegile autonomikotik datorren eragin txikiaren eraginean ere guztiz erresistentea den esfera gisa, Euskadiko boterearen parte den erakundea den aldetik, eta muga hauetara lotzen du bere esku-hartzea:

- a) Ez jartzea zalantzan bere antolakuntza-ezaugarriak.
- b) Ez desitxuratzea bere foru-araubide tradizionalaren irudi identifikagarria.
- c) Behar bezalako euskarria izatea konstituzio-mandatuetan.
- d) Printzipio-izaera edukitzea.

Besteak beste: 105/2012, 120/2014, 138/2015 eta 127/2016 irizpenak.

Aipatutakoetatik lehenengoak bere 148. apartatuan adierazten duenez: "Administrazio publikoa den aldetik, ordea, legegile autonomikoak har dezake esku, administrazio publiko autonomiko guztiek parte hartu behar duten ideia komun baten mesedetan, zeinetik printzipio eta arau orokorrak ateratzen baitira haiei guztiei aplikatzekoak diren antolakuntza- eta funtzionamendu-alderdiei buruz"

Ondorioz, bi mandatuen uztarketak behar den oreka bilatu behar du autonomiarekiko errespetuaren eta, gure kasuan, foru-administrazioen autoantolakuntza-ahalmenaren artean, zeina Estatutuak eta legeek aitortzen baitute, baina horrek ez du oztopo izan behar legegile autonomikoak haiei guztiei gutxieneko izendatzaile komun bat ezartzeko, eta hori indartu egin behar da –gaineratzen dugu– arauketaren helburua denean euskal administrazioek herritarrekin dituzten harremanetan printzipio komun batzuk nagusi izan daitezzen zaintzea.

Aipatutako jurisprudentzia-kontzeptuen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 3. artikuluen arteko loturak, eta, ondorioz, beren antolaketan eta autogobernu-erakundeak eguneratzeko Estatutuak lurralde historikoei aitortzen dien ahalmenak, eta zuzenbidea fenomeno sozial gisa ulertzeak, zeina ezinbestean lotuta baitago hura sortzen duen eta zerbitzua ematen dion errealitate sozialari, ondorioztatzen dute foru-erakundeak ezin direla geratu pertsonifikazio instituzional historiko estatiko batean, eta berrikuntza-gaitasuna eta etengabe bilakatzen ari den gizartera egokitzeko gaitasuna aitortu behar zaiela.

Baina, bestetik, Legebiltzarrak du, EAEko euskal herritarrek ordezkatzeko dituen erakunde gorenaren aldetik, legitimazio demokratikoa eta estatutu-eskumen aitortua administrazio publiko guztiek komun duten ideien zerbitzura egongo den printzipio multzo bat egiteko. Administrazio publiko horiek, beren antolakuntza-autonomiari eutsiz, erakundeak diseinatu ahal izan behar dituzte, herritarrei aukera emango dietenak ustelkeriaren kontra modu komun eta eraginkorrean babestuta sentitzeko, eta berria ez den eta etika publiko gisa edo, zehazkiago, administrazioaren jokabide etiko gisa definitzen dugun ondasun juridiko horren pean egon behar dute, zeinak mekanismoak eduki behar baititu, uniformeak izan beharrik gabe hori bermatzeko gero eta eraginkorragoak izan behar dutenak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak lurralde historikoei beren erakundeen antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari buruzko eskumena berariaz esleitzen dien eredu batean oinarrituta, foru-administrazioek erakunde komunekin duten harremanak, funtsean, erakundeen arteko leialtasunaren printzipioari lotuta egon behar du, zeinak, besteren eskumenak legitimoki gauzatzea errespetatzearekin batera, haztatu behar baititu, norbere eskumenak gauzatzean, eraginpean dauden interes publiko guztiak, eta batez ere lankidetzaren eredu batean oinarritu behar baitu, zeinaren xedea baita administrazio publikoen jarduna antolatzea, disfuntzioak saihesteko eta haien jarduna optimizatzeke.

EH Bildu talde parlamentarioak erakundeen arteko koordinazio- eta lankidetzaren premia hori azpimarratzen du bere alegazioetan, eta adierazten du legearen helburua dela informazioa trukitzea, eta ez –LParen 1.2 artikulua aipatzean adierazten duen bezala– gainerako erakundeen eskumenak eta eginkizunak “zapaltzea” –termino hori erabiltzen du–. Alde nabarmena dago lankidetzaren eta koordinazioaren artean, eta horrek dakar, azken kasu honetan, nolabaiteko zuzendaritza-boterea, koordinatzen duenak koordinatua denarekiko duen gailentasun-posizioaren ondoriozkoa; baina, horretaz harago, kontua da ea LPa, idatzita dagoen bezala, bat datorren azaldutako helburuarekin, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuan jasotako eskumen-banaketa urratu gabe. Izan ere, Konstituzio Auzitegiak abenduaren 15eko 331/2005 Epaian adierazi zuenez, “lankidetzaren eta koordinazio-teknikak erabiltzea guztiz beharrezkoa izaten da, kasu askotan, Estatu autonomikoak funtziona dezan, baina ez du uzten eskumen-printzipioa aldatzen...” (10. OJ). Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundiek gazteriaren euskal legearen proiektuaren inguruan planteatu zituzten eskumen-arazoei buruzko 2012ko martxoaren 1eko 2/2012 Erabakian gogorarazten zenez: “...koordinazio-eginkizunaren edukaren irismena mugatuta dago, koordinazio-ahala ez baita gai kontrol zuzenerako edo hierarkikorako neurriak sartzeko, ez eta eskumena gauzatzean baldintzak gehitzeko ere, baldin eta baldintzok, gauzatze-autonomiaren bermeari eragiten diotelako, egon behar ez duen injerentzia bat edo eskumen-interferentzia ilegítimo bat badakarte (104/1988 Epaia, 2. OJ)” (5. OJ, in fine).

Laburbilduz, Legebiltzarraren lan komun horren eta lurralde historikoen arteko eskumenaren arteko orekari erantzuteko, oinarritzeko arau eta printzipio batzuk zehaztu behar dira haiei guztiei aplikatzekoak diren eta haien ezaugarri nagusiak zalantzan jarriko ez dituzten antolaketa- eta funtzionamendu-alderdiei buruz, eta foru-administrazioei dagokie zehaztea nola egin behar den hori, beren erakundeen eta haien menpeko gainerako organismoen antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari eragiten dieten arloetan. Xedea da EAEn esku hartzen duten administrazio publiko guztientzako substratu komun bat sortzea –gure kasuan, jokabide etikoki gaitzesezina edukitzea–, ordenamendu juridikoak ematen dizkien eskumenak errespetatuko dituen.

Horixe egin zuen Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legeak, bere aplikazio-eremutik kanpo utzi baitzituen lurralde historikoetako administrazioak eta haien organismo, entitate, fundazio eta menpeko enpresa guztiak, baina, lehenengo xedapen gehigarriko 2. apartatuan, xedatu zuen haiei aplikatzekoak izango zirela 5., 6. (6. apartatua izan ezik), 7. eta 8. artikuluetan xedatutako jarduketa- eta jokabide-printzipioak, 9. artikuluko interes-gatazkei buruzko arauak eta 10. artikuluko 1., 2. eta 7. apartatuak, eta, beren araudiak zehazten dituen baldintzetan, dedikazio eskusiboaren eta ordainsari bakarraren printzipioak.

Guri dagokigunarekin bat, aurreko paragrafoan aipatutako legearen xedea da denek partekatzen duten eremu hori ezartzea EAeko kargu publikodun guztientzat, foru-lurraldeetakoak barne, eta azken horien esku uztea bateraezintasun-erregimenaren, kargu publikodunen betebeharren, haien kudeaketa eta kontrolaren eta zehatzeko araubidearen arauak, oso gai garrantzitsuak izaki. Teknika legegile horren bidez, zeinak ez baitu ezinbestean berdintasuna uniformetasunarekin lotzen, kontzeptu horiek ez baitira sinonimoak, printzipio komunetan parekatzeak ez du eskatzen araudi-tratamendu bera estandar etiko horien kontrako jardunbiderik ez dagoela zaintzeaz arduratzen diren organismoentzat. Lurralde historikoei arauak egiteko duten eskumena errespetatzearekin batera, substratu komun bat bermatzen da administrazio guztientzat.

Nahiz eta argudio tangenziala eta ez-esanguratsua izan, 1/2014 Legearen ondoriozko legegintza-dualtasunari eutsiko balitzaio, LPa aintzat hartzen ari garela, ikusiko genuke lurralde historikoek aitortua izango luketela printzipio komun batzuen baitan beren kargu publikodunen jokabidea kontrolatzeko araudi-ahalmena, eta, aldi berean, beren antolakuntza-autonomiaz kanpoko bulego bat egongo litzateke, LParen 1. artikuluko 3. apartatuak dioenez, helburu honekin sortua: jardunbide egokien, balio zibikoen eta gobernu onaren kultura bultzatu eta sustatzea herritarrengan, eta politika publikoen edo administrazio-jardunaren diseinuan, egikaritzean eta ebaluazioan ustelkeria gaitzestea, non –gaineratzen dugu– kargudun publikoek gidaritza-eginkizuna baitute.

Puntu honetara iritsita, ondoren egin beharrekoa da aztertu, arestian aipatu denez, ea proposamenaren proposatzen den bulegoa bat datorren egindako kontsiderazio juridikoekin, proposamenaren xedea baita Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako ustelkeria eta iruzurrezko jardunbideak detektatu, aurreikusi, ikertu eta desagerraraztea, eta, bereziki, bere aplikazio-eremuan lurralde historikoetako administrazioak sartzten baititu.

Egia esan, organo hori berria da, ez baitu aurrekari nominalik lurralde historikoen erakunde propioetan, eta, ondorioz, ez baita EAE bera baino lehen existitu. LPan, administrazio-jardunetik ustelkeria eta iruzurrezko jardunbideak desagerraraztera bideratutako egitura berri gisa taxutzen da. Organo horren zuzendaritza Legebiltzarrak hautatzen du, gehiengo osoaren bidez, eta EAEn dauden administrazio publiko guztietara eta haien menpeko sektore publikoko ente guztietara hedatzen du bere eskumena.

Kontua, ordea, ez da ea egitura hori aurreikusita zegoen foru-erakundearen antolaketa-eskeman EAE sortu baino lehen, baizik eta ea haren araubide juridikoak eta aitortzen zaizkion eginkizunek, ahalmenek eta ahalek eragin esanguratsurik baduten haren aplikazio-eremuan sartzten diren administrazio publikoenean, zeinak, nagusiki, lurralde historikoen kasuan, EAEn lehendik dauden erakundeek osatzen baitituzte.

Xedea ere ez da aztertzea ea bulego hori administrazio-ekoedozein agintaritzarekiko organismo independentea den ala ez, agintaritza horrek eman ditzakeen agindu eta jarraibidepekoa. Dependentsia organiko orotatik kanpoko organo gisa taxutzeak formalki bermatzen du haren independentzia, ziurrenik beste arau-esparru batzuetan ere aurreikusitako beste organo batzuk baino zorrotzasun handiagoz. Kontua da, ordea, zehaztea, independentea izan edo ez, ea hura sortzeak urratzen duen ala ez Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak eta LHLk –eskumenak banatzeko duen oinarrizko eginkizun instituzionalari lotua– lurralde historikoei ematen dieten eskumen-araubidea, hura sortzeak eragina baitu haiengan, beren antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari dagokienez. Haien doktrinaren ondorioetan aipatzen zen printzipio-araubidea gainditzen duten neurrian, baietz ondorioztatu behar litzateke.

Eskumen-banaketa ezin da aldatu administrazio publikoek forma pertsonifikatu instrumentalak hartu dituztelako, edo ez, zerbitzu publikoak emateko. Azaroaren 3ko 5/2003 Erabakian baieztatzen zenez: "...LHLk ezarritako eskumen-banaketaren eskema, hau da, horren eduki materiala aldatzeko, nahitaezkoa da, formaren ikusmiratik behinik behin, Eusko Legebiltzarrak lege-lerruneko arau bat ematea. Arau horrek zuzenean, beren beregi eta oinarri sendoekin ezarri behar du aldarazpena. Osterantzean, LHLk bere eginkizun nagusia galduko luke, hain zuzen ere, EAEn barruan oinarrizko eskumen-banaketa egitea. Hori gauzatzeko legegintza-teknika era askotakoa izan daiteke. Onargarria da, adibidez, LHL oso-osorik eraldatzeko xedapen orokor bat ematea; xedapen hori gaikuntza-titulua izango da, gerogarrenean arauketa zehatza emateko, ordu arte indarrean egon izan denaren desberdina. Onargarria da, era berean, lege berezi bat edo arlokako lege bat ematea; lege horrek beren beregi eskumen-banaketa berri bat ezarriko du, eta, horrekin, LHLk egindako eskumen-banaketaren eskema aldaraziko da. Modu horietan jokatzuz gero, uztartu egin daitezke segurtasun juridikoa eta egungo eskumen-banaketari zor zaion errespetua, banaketa hori baita LHLren oinarrizko edukia. Bi-biok uztartzeaz gain,

aldarazpenerako eta egokitzapenerako eskakizunak betetzen dira denboran zehar, eta ez da beharrezkoa, formaren ikuspuntutik eta arau-hierarkiaren ikuspuntutik, mekanismo bereziak ezartzea aldarazpena burutu ahal izateko" (2. OJ, in fine), eta horrek, nolahi ere –gaineratzen dugu–, estatutu-esparrua errespetatu beharko du.

Begi-bistakoa da eztabaidagai den LPa ez datorrela bat edozein eskumen-aldaketa errespetatu behar duen eskema formal horrekin, ulertuko balitz hori ari dela egiten.

Beraz, aztertu behar da ea proposatutako bulegoa bat datorren, ikuspuntu materialetik, arestian azaldutako doktrinarekin. Erantzuna lortzeko, jakina, esleitzen zaizkion eginkizunetara eta ahaletara jo behar da –oso-oso zabalak dira–, mekanismo juridikoak eman nahi bazaizkio eraginkorra izan dadin.

Zehaztasun-asmorik gabe, eta argudio gisa bakarrik, aurrerago zehatz-mehatz aztertuko baita aurkatutako artikuluko bakoitza, prebentzio-ahalmenen barruan, jokabide-kode etiko berri bat egiteko ahalmena ematen zaio, baina lurralde historikoetan gaur egun daudenei gainjarriko litzaieke. Agintari, goi-kargudun eta administrazio publikoetan lan egiten duten langile guztien jokabideak ikertzeko ahalmena du, bai eta segimendua egiteko eta egiaztatzeko ere ea bete diren ente instrumentalei egindako enkarguak eta LParen 4. artikuluko lehenengo hiru apartatuetan aipatutako subjektuek lizitatu eta esleitutako kontratu administratiboak. LParen 4. artikuluan aipatzen diren administrazio publiko eta entitate guztiek lagundu egin behar diote bulegoari, eta bere eginkizunak egiteko behar duen informazioa eman behar diote; bulegoak, berriz, aukera dauka haien lokaletara sartzeko eta haien dute informazioa eskuratzeko haien baimenik gabe. Horretarako, bulegoko langileak joan daitezke edozein bulegotara informazioa eskatzera eta tokian bertan egiaztapenak egitera, eta azter ditzakete dokumentuak, espedienteak, liburuak, kontabilitate-erregistroak eta datu-baseak, egin ditzakete aurrez aurreko elkarrizketak, lor dezakete kontu-korronteen informazioa, eta abar; eta, izapideak amaitu ondoren, izapidegileak, administrazioei dagozkion gomendio arrazoituak egiteaz gain, has dezake zigor-prozedura bat LPan tipifikatutako ekintzak edo ez-egiteak egiten dituzten agintarien, zuzendarien eta 4. artikuluan aurreikusitako entitateetan lan egiten duten langileen kontra –isunak 90.000 euro-rainokoak izan daitezke arau-hauste oso larrien kasuan–, ez-betetzea deklaratzeko eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko harago.

Bulegoaren ahalmen sorta hori guztia ez da mugatzen EAEn esparruan esku hartzen duten administrazio publiko guztiek komun dute printzipio multzo bat finkatzera, baizik eta eragin zuzena du lurralde historikoetako erakunde propioen antolaketan, araubidean eta funtzionamenduan, baita modu konpulsiboan ere, eta haren ikerketa-ahalmenean edo dago-kion baimenik gabe lokaletara sartzeko duen ahalmenean. Kontua ez da zehaztea ea proposatutakoa bezalako bulego batek eduki behar dituen ala ez halako ahalmenak. Erabaki behar dena da ea erakunde komun batek, hala nola Legebiltzarrak, onesteko sortzea proposatzen den tresnak inbaditzen dituen ala ez lurralde historikoen eskumenak, beren jarduketa-eremuan sartzean. Eta egindako azterketatik ondorioztatzen da, modu generikoan, baietz, zalantzan jarritako gainerako mandatu guztiak banan-banan aztertzeak egin daitezkeen salbuespenak eta kontsiderazioak salbu.

Era berean, foru-lurraldeetan lehendik dagoen arauketa dela eta, gerta daiteke bulego horren eta foru-lurraldeek sor ditzaketen beste batzuen artean bikoiztasun funtzionala egotea; izan ere, horixe gertatzen da Interes Gatazkei eta Bateriaezintasunei buruzko azaroaren 21eko Bizkaiko 5/2018 Foru Arauaren 29. eta 30. artikuluetan aurreikusten den Berme Organoarekin, zeinaren funtzio batzuk jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoari esleitzen zaizkion berberak baitira, nahiz eta zehatzeko araubidea desberdina izan. Hala, gertaera beren aurrean, gerta liteke eskumen-gatazka egotea bi organoen artean, eta, gainera, bikoiztasuna egotea haien ikerketa-eginkizunetan, ondorioetan eta, hala badagokio, ezarritako zehapenetan.



Gauza bera esan daiteke Arabaren kasuan, non foru-kargu publikoen jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren 33.1 artikulua Aldundiko idazkaritza nagusiaren zerbitzuari esleitzen baitio bateraezintasun-erregimenaren eta foru-arauan kargu publikodunei ezarritako betebeharren administrazio-kudeaketa; eta organo horrek badu beste eginkizun bat: zehapen-espeditteen instrukzioa izapidetzea, 39. artikuluan garatutako zehapen-prozedurari jarraikiz. Edo, azkenik, Erakundearen Etika Batzordea, zeina, Gipuzkoako lurralde historikoan, martxoaren 1eko 3/2016 Foru Dekretuaren bidez sortzen baita, nahiz eta haren ahalmenak mugatuagoak izan.

Eusko Jaurlaritzaren alegazioetan, bulego hau parekatzen da beren aplikazio-eremua EAEn diharduten menpeko administrazio eta organismo guztietara hedatzen duten beste organo eta egitura publiko batzuekin. Bada, erreferentzia horiek ez dira asimilagarriak, eta ez diote eragiten foraltasunaren gune ukiezinari, oinarritzat dituzten estatutu- edo lege-mandatuaren arabera eta arestian azaldu dugun moduan; gainera, eskumen-titulu bat dute euskarri.

Arartekoaren instituzioa Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 15. artikuluan dago jasoa, zeinak, Espainiako Konstituzioaren 54. artikulua bezala, Herritarren Babeslearen antzeko organo bat sortzea aurreikusten baitu, hark esleituak dituen eginkizunak eta Eusko Legebiltzarrak esleitzen diezazkiokeen beste edozein beteko dituen. Estatutu-mandatu horren babesean sortu zen Arartekoaren figura, Eusko Legebiltzarraren otsailaren 27ko 3/1985 Legean, zeinak, 9. artikuluan arabera, lurralde historikoetako administrazioa ere hedatzen baitu bere jarduketaren eremua, haren organismo autonomoak, sozietate publikoak eta gainerako ente publikoak barne. Beraz, EAEn eskumen-esparru propio eta espezifikoen barruan sortu zen.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, zeina Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren 1/1988 Legean arautzen baita –eta hura aldatu du martxoaren 1eko 6/2012 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko arlo publikoaren gehiengoko partaidetza edo finantziarioa daukaten erakundeak arautze aldera Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legea eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Legea aldatzekoak–, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10. artikuluko 24. apartatua eta LHLren 30. artikuluan du oinarria –azken horrek euskal sektore publikoko jardura ekonomiko eta finantzarioak fiskalizatzen dituen organo goren gisa konfiguratu du, eta haren jurisdikzioa EAEn lurralde osora zabaltzen du–.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen bidez sortua, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren babesean egin da, zeinak, 95/46/EE Direktibaren 28. artikuluari jarraikiz, xedatzen baitu agentzia horri esleitutako eginkizun gehienak, baldin eta eginkizun horiek autonomia-erkidegoek eta haien lurralde-eremuko toki-administrazioak sortutako edo kudeatutako datu pertsonalen fitxategiei eragiten badiete, erkidego bakoitzeko organoek beteko dituztela.

Azkenik, Lehiaren Euskal Agintaritza sortu da Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.27 artikulua barruko merkataritzaren arloan EAEn ematen dion eskumenetik, eta 1999ko azaroaren 11ko Epaia du euskarri, zeinaren bidez barruko merkataritzaren arloan eskumenak dituzten autonomia-erkidegoei baitagokie lehia askeari lotutako gaietan esku hartzeko, baimena emateko edo zigortzeko eginkizun exekutiboak betetzea, betiere Europar Batasunaren barruko esparruetan egiten diren edo erkidegoaren lurralde-eremuari dagokion merkatura mugatuta dauden jardunbideak badira.

Beraz, ez dago alegatu nahi izan den paralelismoa.

Azalduko guztitik zera ondorioztatzen da:

a) Nahiz eta interpretaziozkoa bakarrik izan, atarikoaren IV. apartatuko hirugarren paragrafoak, zeinak (espresuki) adierazten baitu “bulegoaren jarduketaren eremua Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten erakunde guztiak hartzen dituela”, eta

b) LParen 1. artikuluko 2. apartatuak, zeinak EAEko administrazio publiko guztiak eta horiek parte hartzen duten sozietateak eta entitateak hartzen baititu ustelkeria eta iruzurrezko jardunbideak detektatu, aurreikusi, ikertu eta desagerrarazteko sortzen den jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak kontrolatu beharrekotzat, eta

c) arau-corpus bereko 4. artikuluko 2. apartatuak, zeinak bulegoaren jarduketa-eremuaren barruan sartzen baititu lurralde historikoetako administrazioa eta haren menpeko organismoak, enteak, entitateak, fundazioak eta enpresa publikoak, baldin eta partaidetza handiena edo jabari eraginkorra hari badagokio, zuzenbide publikokoak edo pribatukoak izan, partaidetza-ehunekoari dagokionez mandatu horretatik ondorioztatzen diren ñabardurekin,

urratu egiten dute Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 37. artikuluan jasotako eskumen-banaketaren sistema, eta, berezi-bereziki, urratu egiten dute 37.3.a) artikuluan xedaturikoa, zeinaren arabera lurralde historikoen eskumen eskusiboa baita haien erakundeen antolaketa, araubide eta funtzionamenduari dagokiena.

**BIGARRENA. JARDUNBIDE EGOKIEN ALDEKO ETA USTELKERIAREN KONTRAKO BULEGOA SORTZEKO LEGE-PROPOSAMENEN 5. ARTIKULUKO E) APARTATUARI BURUZKO AUZIEN GAINEKO ERABAKIA.**

AFaren eta BFaren ordezkariak zalantzan ipintzen dute “Kontratazio publikoa arautu eta gainbegiratzea” funtzioa, zeina jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoari esleitzen zaion LPko 5.e artikuluan. Adierazten dute ezen, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Lege estataleko 332. Artikuluan xedaturikoari jarraikiz, kontratazioa arautzeko eta gainbegiratzeko bulego independentea sortzen dela, eta xedatzen da ezen autonomia-erkidegoek beren gainbegiratze-bulego propioak sor ditzaketela, eta alegatzen dute ezen jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa, zeina LPan sortzen baita, ez datorrela bat 9/2017 Legeko xedapenarekin.

Eusko Jaurlaritzak egin dituen alegazioetan adierazten da 5.e artikulua ez duela loturarik erakunde erkideen eta foru-organoen arteko eskumen-banaketaren gaineko eztabaidarekin.

Bestalde, EH Bildu talde parlamentarioaren bozeramaileak alegatzen du, lehendabizi, LPak erreferentzia egiten diola kontratazio publikoa arautzeko eskumenari. Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.24 artikuluan eta 11.b artikuluan kokatzen du kontratuei buruzko oinarrizko legeria garatzeko eta egikaritzeko eskumena, eta adierazten du ezen Sektore Publiko Kontratuen Legeak (9/2017, azaroaren 8koa) autonomia-erkidegoen esku uzten duela kontratazio publikoaren zuzentasuna bermatuko duen bulego bat edo antzeko baliabide bat sortzea, eta aukera hori jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulego bat sortuz garatzen dela. Halaber, adierazten du LPan “ez dutela proposatzen Lurralde Historikoen Legean definitzen den eskumenen banaketan urratzea, ezpada gainbegiratzea eta koordinazioa lantzea aurre egiteko kontratazioaren arloan gerta litezkeen jokabide ustelen zantzuei”. Gainera, adierazten du GFAk aurkezturiko auzia ez datorrela bat Arabako eta Bizkaiko aldundiek eginiko alegazio honekin.

Proposameneko 5.e artikuluari dagokion eskumen-arazoa ebazteko, lehendabizi, mugatu behar da zein den “kontratazio publikoa arautu eta gainbegiratzea” funtzioaren azpian datzan eskumenezko materia, eta, hori eginda, zehaztu, erakunde erkideen eta foru-organoen arteko eskumen-banaketarako arauari jarraituz, zein erakunderi dagokion funtzio hori.

Lehendabizi, adierazi behar dugu ezen Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 332. Artikulua kontratazioa arautzeko eta gainbegiratzeko bulego independentea sortzen duela xede honekin: “(...) legeria zuzen aplikatzen dela zaintzea eta, bereziki, konkurrentzia sustatzea eta ilegaltasunen aurka borrokatzea kontratazio publikoari dagokionez”. Manuak ezartzen du bulegoak independentzia organikoa eta funtzional osoarekin lan egingo duela. 12. apartatuak xedatzen du autonomia-erkidegoek kontratazioa gainbegiratzeko beren bulegoak sortu ahalko dituztela.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen azken xedapenetako lehenengoko 3. apartatuaren arabera, oinarrizko legeria da 12. apartatuan xedaturikoa, zeina diktatzen baita Konstituzioaren 149.1.18 artikulua babesean (administrazio-kontratu eta administrazio-emaikidei buruzko oinarrizko legegintza), eta, ondorioz, aplikatu behar da administrazio publiko guztietan eta haien mendeko organismo eta entitate guztietan.

Eztabaidagai den materia kontratuei buruzko eskumen-tituluan kokatu ondoren, ebatzi behar da Autonomia Erkidegoaren erakunde erkideen eta foru-organoen arteko eskumen-banaketaren muga kontratazioari dagokionez. Euskal Autonomia Erkidegoaren Autonomia Estatutuaren 11.1.b artikulua arabera, EAEn eskumena da administrazio-kontratu eta administrazio-emaikidei buruzko Estatuaren oinarrizko legeria haren lurraldean lege bidez garatzea eta betearaztea. Administrazio-kontratazioaren arloan, ez diete lurralde historikoei eskumenik esleitzen, ez Euskal Autonomia Erkidegoaren Autonomia Estatutuak, ez Lurralde Historikoen Legeak. Hori horrela, erakunde erkideei dagokie administrazio-kontratazioari buruzkoa legez garatzea. Lurralde Historikoen Legearen 6.1 artikulua arabera, "Autonomia Estatutuaren arabera, Autonomia Erkidegoari dagozkionak izanik, estatutu horretan, lege honetan edo gerokoren baten lurralde historikoetako foru-organoei aitortu edo izendatu ez dakizkien gai guztietako legegintza eta egikaritzea Autonomia Erkidegoko erakunde erkideei dagokien aginpide da". Autonomia Estatutuak berariaz esleitzen dio EAEn administrazio-kontratazioaren arloa legez garatzea edo egikaritzea, eta, Ebazpen Batzordeak, 1/2014 Erabakian, esan bezala, arlo horretan ez diete lurralde historikoei eskumenik esleitzen, ez Autonomia Estatutuak, ez Lurralde Historikoen Legeak.

Haren proba da Zenbait Klausula Sozial Kontratazio Publikoan Sartzeko apirilaren 7ko 3/2016 Legearen 3. artikuluan ezarritako xedapena, zeinak, legearen aplikazio-eremua arautzean, xedatzen baitu legea aplikatu behar dela Euskadiko sektore publikoa osatzen duten entitate guztien kontratazio-organoei eta, haren ondoren, 2. zenbakian, xedatzen baitu euskal sektore publikotzat jotzen direla "(b) lurralde historikoetako foru-aldundiak eta horien mendeko erakunde instituzionalak eta sozietate publikoak".

Halaber, adierazi behar dugu ezen lege-proposamenaren beraren bigarren xedapen gehigarriak, zeina ez baitute auzitan jarri foru-aldundiek, kontratazioa arautzeko eta gainbegiratzeko funtzioak ezartzean, xedatzen du Legebiltzarrak, bulegoarendik ahalik eta informazio zabalena jasoko duela, kontratazio publikoaren eta arlo honetan hartzen diren ekimenen kontrola eta zaintza ahalbidetzeko, eta bulegoak, halaber, Estatuko organo eskudunekiko eta Europako erakundeekiko koordinazio-eginkizunak beteko dituela kontratazioa arautzeko eta gainbegiratzeko eginkizunetan.

Kontratuen arloko eskumenen banaketaren gaineko ordenamenduaren azterketa honi esker, esan dezakegu LParen 5.e artikuluan xedatzen dena ondo egokitzen zaiola erakunde erkideen eta foru-erakundeen arteko eskumenen banaketari.

**HIRUGARRENA. JARDUNBIDE EGOKIEN ALDEKO ETA USTELKERIAREN KONTRAKO BULEGOA SORTZEKO LEGE-PROPOSAMENEN 6. ARTIKULUKO B, C ETA D APARTATUEI BURUZKO AUZIEN GAINEKO ERABAKIA.**

LParen 6. artikulua arautzen ditu EAEn jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren prebentzio-eginkizunak. Bai AFA bai BFA eskumen-arazoa aurkeztu dute 6. artikuluko b, c eta d) letretan xedaturiko eginkizunak direla-eta. b) letrak eginkizun hau xedatzen du: "Jokabide-kode etiko berri bat garatzea, zeinaren bidez orain arte daudenetan sakonduko den eta ezarriko den zein arau etiko eta zer jokabide-arau bete beharko dituzten Jaurlaritzako kideek, goi-kargudunek, behin-behineko langileek, sektore publikoa osatzen duten entitateetako zuzendaritza-kideek eta hautetsiek". c) letrak eginkizun hau xedatzen du: "Administrazio publikoan jokabide-kode etikoa eta jardunbide egokien gida aplikatu daitezkeen sustatu, bultzatu eta bermatzea". Azkenik, d) letrak hau xedatzen du: "Jarduera eta Interesen Erregistroa kudeatzea eta jardueren eta interesen aitortzearen emandako informazioa egiaztatzea, gatazka-kasuak ebaztea eta argu publikoaren ondasunaren gehikuntza moduan gertaturiko aldaketen justifikazioa egiaztatzea".

AFAk eta BFAk esaten dute eginkizun horiek izendatu zaizkiela AFAn eta GFAn jada sortuta dauden etika-batzordeei edo Bizkaiko kasuan aurreikusten den berme-organoari. AFAk gehitzen du ezen Aldundiko Idazkaritza Zerbitzuari izendatu zaizkiela bai jarduera eta interesen erregistroaren kudeaketa bai bateraezintasunen araubidearen kudeaketa, eta horrela egin dela foru-kargu publikoen jarduna arautzen duen 10/2018 Foru Arauren 33. artikularen arabera, eta, horrenbestez, LParen arauak inbaditzen dutela AFaren eskumenak, salbu eta bulego horren eginkizunak mugatuko balira Euskal Autonomia Erkidegoko eta haren sektore publikoko kargu publikoetara, haren Administrazioa eta, d) letraren kasuan, Eusko Jaurlaritzako kideetara eta administrazio horretako goi-kargudunetara eta administrazio horretako zuzenbide pribatuko enteetako edo fundazioetako zuzendaritza-karguetara.

Bi foru-aldundi horien ustez, auzitan jarri diren bulego berri horren jarduna lurralde historikoetako administrazioan eta haren foru-sektore publikoan egiteak inbadituko lituzkeela foru-aldundiek materia horretan dituzten eta egikaritu izan dituzten eskumen eskusiboak (Autonomia Estatutuaren 37.3 artikulua eta Lurralde Historikoen Legearen 7.a artikulua).

Manu honen gaineko arazoa aurkeztu duten foru-aldundiek beraiek uste dute ez luketela ezer esatekorik baldin eta, b) letraren hitzez hitzeko edukia ulertzen den bezala, aurreikusten den etika- eta jokabide-kode berria mugatuko balitz egun EAEko kargu publikoentzat eta haren sektore publikoarentzat dagoen kodea sakontzera, mugatuko balitz EAEko Administrazioari dagokion aplikazioa sustatzera, bultzatzera eta bermatzera (c letra), edo mugatuko balitz Jarduera eta Interesen Erregistroa kudeatzera eta Eusko Jaurlaritzako kideek eta administrazio horretako goi-kargudunek edo administrazio autonomo horren sektore publikoko zuzenbide pribatuko enteetako zuzendariak adierazpen horietan emandako informazioa egiaztatzen.

EH Bildu talde parlamentarioak azpimarratzen du ez dela LParen xedea lurralde historikoetan ustelkeriaren kontra egikaritu diren ekimenak mugatzea eta LParen helburua dela bateratzea, koordinatzea eta elkarlanari norabide bat ematea. Halaber, EH Bildu talde parlamentarioak adierazten du ezen, nahiz eta Bizkaiko Foru Aldundiak aipatzen duen Gipuzkoako Aldundiak sorturiko Etika Batzordea, Gipuzkoako Foru Aldundiak ez du alegaziorik aurkeztu auzitan jarri den manuari buruz.

Termino horietan azaldu den arazoa dela-eta, adierazi behar dugu, LParen I. kapituluari dagokion arazoibideetan esan bezala, foru-erakundeek beren jokabide-kodeak edo kode etikoak, nork bere izena emanda, onetsi dituztela, eta horrela egin dutela haien erakundeen antolaketa, araubide eta funtzionamenduaren gainean duten eskumen eskusiboa garatuz, zeina onartzen baitzaie Autonomia Estatutuaren 37.3.a artikulua eta Lurralde Historikoen Legearen 7. Artikuluan: Gipuzkoako Foru Aldundiaren kasuan, Foru Gobernu Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko erabakiaren bidez, erakundearen zuzentasun-sistema onetsi zen, eta, sistema horren parte gisa, Gipuzkoako Foru Administrazioa eta foru-sektore publikoa osatzen duten gainerako entitateetako kargu publikoen zein langile baliokideen jokabide eta jardunbide egokien kodea. Bizkaiko Batzar Nagusiei dagokienez, hauek 5/2018 Foru Araua, azaroaren 21ekoa, Interes-gatazkei eta Bateraezintasunei buruzkoa, onetsi zuten, non aztertu baitziren lurralde horretako foru-karguen jokabidea gobernatu behar duten printzipio etikoak eta gobernantza onaren printzipioak. Eta Arabako Foru Aldundiari dagokionez, Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 3ko 477/2015 Erabakiaren bidez onetsi zen lurralde historiko honetako sektore publikoko kargu publiko eta ordezkarien etika-kodea eta gobernu onaren kodea, bai eta Arabako Batzar Nagusien 10/2018 Foru Araua, uztailaren 11koa, foru-kargu publikoen jarduna arautzen duena.

Foru-lurraldeek onetsitako kodeetako arauak kontuan hartuta, eta, beste alde batetik, LParen 6. artikuluko b, c eta d) letretako arauak kontuan hartuta, litekeena da bikoiztasun funtzionaleko kasuak izatea. Esaterako, foru-kargu publikoen jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauak, 35. artikuluan, Aldundiaren Idazkaritza Orokorrari esleitzen dio Foru Kargu Publikodunen Ondasun eta Interesen Erregistroa; aldiz, LParen 6.d artikulua EAEko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoari esleitzen dio funtzio hori. AFAk edo BFAk

onetsitako etika-batzordeen eta Bizkaian aurreikusten den berme-organoaren funtzioak aztertuta, egiaztatzen da ezen auzitan jarri diren aurreikusteko funtzioak esleitzen zaizkiela, lurralde historikoen kasuan, lurralde bakoitzeko organoei, lurralde horietako kargu publikoei eta foru-karguei dagokienez.

Ulertzen bada ezen LParen 6. artikuluan xedatzen diren aurreikuste-jarduerak, zeinak Arabako eta Bizkaiko foru-aldundiek auzitan jarri dituzten, zabaltzen direla lurralde historikoetako administrazioetara eta haien sektore publikora ere, ulertu beharko genuke berriz eta zuzen inbaditzen ari direla lurralde historikoetako erakundeek antolaketa, araubideaz eta funtzionamenduaz dituzten eskumenak. Ebazpen honetan LParen lehenengo kapituluari buruz azaldu diren arazoibideekin bat etorrita, interpretazio zabal horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 37.3.a artikulua urratzea suposatuko luke, artikulua horren arabera lurralde historikoei baitagokie beren erakundearen antolaketa, araubide eta funtzionamenduaren gaineko eskumen eskusiboa.

Baina, BFAk eta AFAk adierazi bezala, ulertu daiteke ezen LParen 6. artikuluko b, c eta d) letrak ez direla Autonomia Estatutuaren 37.3 artikulua kontrakoak, interpretatzen badugu bai kode berria egitea bai auzitan jarri diren aurreikuspen-funtzioak soilik aplikatuko zaizkiela Eusko Jaurlaritzako kideei, Administrazio horretako goi-kargudunei eta Administrazio autonomoaren sektore publikoko zuzenbide pribatuko enteetako zuzendariei.

Horrela uler daiteke 6. artikuluko b) letraren hitzez hitzekoa, zeinak, bulegoak jokabide kode etiko berri bat egiteko funtzioa aipatzean, aplikazio-eremua mugatzen baitu "Jaurlaritzako kideek, goi-kargudunek, behin-behineko langileek, sektore publikoa osatzen duten entitateetako zuzendaritza-kideek eta hautetsiek" bete behar dituzten jokabide-arauetara. LParen 6. artikuluko c eta d) letratan xedatzen diren eginkizunek soilik seinatzen dituzte bulegoak izan litzakeen prebentzio-jarduerak, jarduera-eremu subjektiboa zein den aipatu barik.

Interpretazio bera egin daiteke d) letraren bigarren paragrafoaren hitzez hitzekoaz, zeinean gainbegiratze-bulegoari esleitzen baitzaio eginkizun hau: egiaztatzea jardueren eta interesen aitortzearen emaniko informazioa eta ebaztea gatazka-kasuak "toki-administrazioetako goi-kargudunen eta kargu hautetsi publikoen bateraezintasunen araubideari dagokienez", betiere horrela erabakitzen duenean toki-administrazioetako organo eskudunak eta kasuko hitzarmena formalizatu ondoren. Azpimarratu behar da manu horrek inoiz ez duela foru-administrazioa aipatzen; hala ere, berariaz aurreikusten da toki-administrazioarekin hitzarmena egiteko aukera.

Horiek horrela, LParen 6. artikuluko b, c eta d) letrak ez dira Euskal Autonomia Erkidegoaren Autonomia Estatutuaren 37.3.a artikulua kontrakoak, interpretatzen delarik aurreikusten diren eginkizunak Eusko Jaurlaritzako kideei, Administrazio horretako goi-kargudunei eta Administrazio autonomoaren sektore publikoko zuzenbide pribatuko enteetako zuzendariei bakarrik dagozkiela.

**LAUGARRENA. JARDUNBIDE EGOKIEN ALDEKO ETA USTELKERIAREN KONTRAKO BULEGOA SORTZEKO LEGE-PROPOSAMENEN 7.1. ARTIKULUKO A, B, C ETA D APARTATUEI BURUZKO AUZIEN GAINEKO ERABAKIA.**

AFA, GFA eta BFAREN ordezkariak auzitan jartzen dute LParen 7.1 artikulua, uste baitute artikulua horrek "zalantzarik gabe inbaditzen dituela haien eskumenak, urratzen du-eta, jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak ikerketa-arloan egin behar dituen arautzean, Autonomia Estatutuaren 37.3.a artikuluan eta Lurralde Historikoen Legearen 7. artikuluan xedatutakoa. Izan ere, foru-organoen eskumena da (i) zehaztea zein berme-organok egingo duen foru-administrazio publikoen zerbitzupeko agintari eta goi-kargudun edo langileetan interes-gatazka sor dezaketen jokabideen jarraipena, eta foru-organoen eskumena da (ii) zehaztea zer prozedura edo izapideren bidez egin beharko dituzten organo horiei esleituriko eginkizunak (AFAk eta BFAk arazoibide berdina erabili dituzte). Bestalde, 4.2 artikulua egin zaion bidaltze-oharrak adierazi nahi du ezen jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren

kontrako bulegoak gainbegiratu litzakeela ente instrumentalei egindako enkarguak edo foru-aldundien kontratu administratiboak edo lurralde bakoitzeko foru-sektore publikoarenak. Hori horrela, lege-proposamenak argi eta garbi urratuko lituzke foru-organismoek bere erakundeen antolaketan, araubidean eta funtzionamenduan dituzten eskumen eskusiboak.

Eusko Jaurlaritzak, AFAk, GFAk eta BFAk azaldutako arrazoibideak direla-eta, hau adierazten du: “Esandakoa ondoko artikulua hauen xedapenez ere esan daiteke: 7.1, 9.1, 11. artikulua 1. paragrafoa, 15.3, 23.f, 36.g eta 47. Hori horrela, eta esan den bezala, ikusi beharko da zer ebazten den 4.2 artikulua gainean horiei ere aplikatzeko, lehenago esan baita, LParen 6. artikuluari dagokionez, manu hori ez dagoela lotuta eztabaidaren nukleoarekin, zeionaren patua eta ondorioak izango baitira aipaturiko manuen gainean ebazten direnak”

EH Bildu talde parlamentarioren bozeramaileak, LParen 7.1 artikulua dela-eta, arrazoibide hau gehitzen du proposamena Lurralde Historikoen Legean xedatutakora egokitzen dela defendatzeko: “Alegazio honetan, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako aldundiek adierazi dute ezen lurralde historikoetako entitate instrumentalak eta kontratu administratiboak gainbegiratzeko posibilitateak beren eskumenak urratzen dituela. Bosgarren artikulua dela-eta erabili zen arrazoibide bera berriz azpimarratuz, lege-proposamena Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenaren barruan kokatzen da, eskumen horren arabera EAERI baitagokio sektore publikoaren ordenamenduaren garapena, 3/1979 Lege Organikoaren 10.24 eta 11.b artikuluen barruan. EAERI erakundeetan aplikatu beharko dira Estatuaren Kontratu Publikoen azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedaturiko irizpideak, eta EAERI dagokio irizpideok arautzea eta betearaztea, zeina zehazten baita lege-proposamen honetan, erakunde bakoitzak horretarako dituen eskumenak errespetatuta. Han, autonomia-erakundeen esku uzten da kontratazio publikoaren zuzentasuna bermatuko duten bulego edo antzeko organoak sortzeko eskumena”

Hori esanda, ebatzi beharko genuke ea LParen 7.a artikulua erredakzioa egokitzen den ala ez Lurralde Historikoen Legeak xedatzen duen eskumen-banaketara eta, horrela balitz, zein erakunderi dagokion eskumen hori EAERIren eskumen-banaketarako markoaren barruan. EH Bilduren ordezkariak erabilitako arrazoibideetan Estatuaren Kontratazio Publikoaren azaroaren 8ko 9/2017 Legearen irizpideetan eta sektore publikoaren antolamenduan kokatzen da gaia, non xedatzen baita kontratazioa arautzeko eta gainbegiratzeko bulego independente baten sorrera, zeina ebazpen honetan jada aztertu baita LParen 5. artikulua inpugnazioaren kariaz.

Baina LParen 7.1 artikulua erredakzioak kontratazio administratiboa gaintzen du eta zuzenean lotzen da LParen 1.2 eta 4.2 artikuluetan xedatutakoarekin, zeinak, azterketan adierazi dugunez, zuzenean eragiten baitie lurralde historikoetako erakunde propioen antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari, baita orain aztertzen ari garen LParen 7.1 artikulua hartzen duen ikerketa-gaitasunari ere. Horregatik, bada, azterketa xehatuago bat egin beharko da eta bateragarri egin beharko dugu jada aztertu diren ebazpenekin.

Zehatzago, LParen artikulua xedatzen du bulegoaren eginkizuna izango dela “jokabide irregularrei buruzko ikerketak egitea, jokabide horiek interes-gatazkak sor baditzakete agintariengan, goi-kargudunengan eta administrazio publikoaren zerbitzuko nahiz fundazioetako edo haien partaidetza nagusi den edo jabari eraginkorra duten enpresa publikoaren –zuzenbide publiko nahi pribatuz erendua direla– zerbitzuko langileengan, kode etikoaren aurkakoak badira edo EAERI sektore publikoari zuzenean nahiz zeharka kalte ekonomikoa edo ospe-galera ekar badiezaiokete”. Horrek guztiak lurralde historikoen eskumenetako immisio bat dakar, Autonomia Estatuaren 37.3.a artikulua arabera eta Lurralde Historikoen Legearen 7.a.1 artikulua arabera eta foru-organismoek antolaketaz, araubideaz eta funtzionamenduz dauzkaten eskumen eskusiboen arabera, materia horretan, gainera, Lurralde Historikoen Legearen 8.1.c artikulua lurralde historikoei ematen die-eta potestate administratiboa, “ikuskaritza barne”. Zail da ulertzen ikuskaritza-lana alde aurretik ez badago egiaztatze- eta ikertze-lanik.

Antzeko arrazoibidea erabil daiteke LParen 7.1 artikulua c eta d) apartatuei dagokienez, nahiz eta d) apartatuan zehaztapen bat egin daitekeen, ebazpen honetan esandakoaren babesean, LParen 5.e artikulua dagokionez, eskumenak egokitzea Lurralde Historikoen Legearen arabera materia honetan: artikulua eta apartatu horretan xedatzen den kontratu administratiboak egikaritzearen gaineko jarraipena eta egiaztatzea, arautzeko eta gainbegiratzeko eginkizun horren ondorio gisa ulertzen direlarik egikaritzearen jarraipena eta egiaztatzea.

Azken buruan, LParen 7.1 artikulua, a, b eta c) apartatuetan, ez zaio egokitzen Lurralde Historikoen Legeak eskumenen banaketaz xedatzen duenari, eragiten baitio lurralde historikoek beren erakundeen antolaketaz, araubidez eta funtzionamenduaz duten eskumen eskusiboari.

Artikulua d) paragrafoari dagokionez, eta ebazpen honetan LParen 5.e artikulua erabili diren arrazoibideekin bat etorrira, haren erredakzioa egokitzen zaio Lurralde Historikoen Legearen ezarritakoari, baldin eta han aipatu diren parametroen arabera interpretatzen bada.

**BOSGARRENA. JARDUNBIDE EGOKIEN ALDEKO ETA USTELKERIAREN KONTRAKO BULEGOA SORTZEKO LEGE-PROPOSAMENEN 9.1. ARTIKULUEI BURUZKO AUZIEN GAINEKO ERABAKIA.**

LParen 9.1 artikulua bulegoari esleitzen dio LParen 4. artikulua 1, 2 eta 3 zenbakietan jasotako erakundeen zerbitzuko langileak zaintzeko eginkizuna. Hori dela eta, AFAk eta BFAk arrazoibide hauek erabiltzen dituzte: "Ustez ustelak izan daitezkeen jokabideak edo praktika irregularrak salatzen dituzten pertsonak zaintzeko eginkizunaz artikulua honek egiten duen erregulazioa, saiheste aldera pertsona horien lan-baldintzak edo baldintza profesionalak okertzea funtzio publikoan balio eta jokabide onak defendatzeagatik, bada, erregulazio hori zabaltzen bada lurralde historikoetako Administrazioaren zerbitzuan edo haren foru-sektore publikoaren zerbitzuan dauden langileetara, urratu egiten da Autonomia Estatutuko 37.3.a artikuluan xedaturikoa, lurralde historikoena baita beren langile publikoak zaintzeko behar diren neurriak hartzeko eskumena. Hori horrela, hau dio Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 12. artikuluan: "Gainontzeko euskal administrazio publikoetan, horietako bakoitzeko jaurtze-erakundeak beteko ditu funtzio publikoari buruzko egitekoak, horiei ezarri beharreko berariazko arauetan aitorturik izan ditzaten ahalpideen arabera." Eta Euskal Funtzio Publikoaren buruzko Legeak, 69.1 artikulua, hau xedatzen du: "Euskal administrazio publikoek funtzionarioei hauek egitekoak betetzean beharrezko duten babesa eskainiko dieta eta lege honetan jasotzen diren eta funtzionarioei dagozkien eskubideak bermatuko dituzte." Beraz, foru-langile publikoak babesteko funtzioa bulego horri esleitzeak esku-hartze zuzena dakar foru-erakundeetako organoek beren langilei buruz dituzten eskumenetan".

GFAk hau gehitzen du artikulua berberaz ari dela: "LParen 4.2 artikulua egiten zaion bidaltze-oharrak esan nahi du ezen jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren eginkizuna izan litekeela foru-aldundietako eta lurralde historiko bakoitzeko gainerako foru-sektore publikoko langileak babestea, zeina bateraezina baita horiek beren erakundeen antolaketaz, araubidez eta funtzionamenduaz duten eskumen eskusiboarekin".

Arrazoibide horren aurrean, Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak errepikatzen du LParen 7.1 artikulua dela-eta egindako arrazoibidea, zeina jada aipatu baita, eta EH Bildu talde parlamentarioaren ordezkariak ere lehengo arrazoibidea errepikatzen du, azpimarratzen duelarik ez direla urratzen Lurralde Historikoen Legearen arabera lurralde historikoek dituzten eskumen eskusiboak, gaia berriz kokatzen baitu sektore publikoaren antolamenduan: "Lege-proposamenak lege honen eraginpean jartzen du Euskadiko egitura instituzional osoa, eragin nahi baitie antzeko helburu edo helburu bereberekin eremu bakoitzean eratu diren organo eta entitateen arteko koordinazioari eta elkarlanari. Lege-proposamena Euskal Autonomia Erkidegoak sektore publikoaren ordenamendua garatzeko duen eskumenaren barruan kokatzen da, 3/1979 Lege Organikoaren 10.24 artikulua eta 11.b artikulua barruan, urratu barik, alegazioan adierazi denez, aldundien eskumen eskusiboa. Lehenago esan bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulego derrigorrean jardun behar du

batera egitura instituzional osoan elkartu diren baliabide guztiekin, eremu instituzional osoan ustelkeriaren aurka hartzen diren ekimenak bateratuz. Lege honen helburua da erakundeek duten informazioa elkarrekin trukatzea, koordinatzea eta neurri bateratuak hartzea”.

Auzia arrazoibide horietan kokatzen badugu, gakoa da jakitea sektore publikoa antolatzeko eskumena, Autonomia Estatutuan jasoa, estaldura nahikoa den Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan eta haiek parte hartzen duten entitateetan eta elkarrekin lan egiten duten langileak babesteko funtzioa arautzeko lege honetan arautzen diren terminoetan, LParen 1.2 artikuluan xedatu bezala, eta argi eta zehatz biltzen ditu haien artean lurralde historikoetako administrazioak eta haien organismo, ente, entitate, fundazio eta enpresa publikoak, hori guztiori LParen 4.2 artikulua araberaren arabera.

Ahaztu barik bulego honen eta lurralde historikoetan haien antolaketa, araubide eta funtzionamenduaren barruan sortu daitezkeen besteen artean izan daitezkeen bikoiztasun funtzionala, ondorioa da ez dela nahikoa sektore publikoaren antolamenduari heltzea Lurralde Historikoen Legeak lurralde historikoei foru-organoen antolaketa, araubideaz eta funtzionamenduz onartzen dien eskumena indargabetzeko.

Ondorioz, 9.1 artikulua jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoari esleitzen dion zaintze-eginkizunak urratzen du Lurralde Historikoen Legeak ezarritako eskumenen banaketa 4.2 apartatuari dagokionez eta horretan jasotzen diren foru-izaerako erakundeek dagokienez, hori guztiori bat etorrita beste batean jada aipatu diren Autonomia Estatuaren 373.a artikulua eta Lurralde Historikoen Legearen 7.a.1 eta 8.1.a artikuluekin.

**SEIGARRENA. JARDUNBIDE EGOKIEN ALDEKO ETA USTELKERIAREN KONTRAKO BULEGOA SORTZEKO LEGE-PROPOSAMENEN 11. ARTIKULUAREN LEHEN PARAGRAFOARI BURUZKO AUZIEN GAINEKO ERABAKIA.**

11. artikulua, lehen paragrafoan, xedatzen du administrazio publikoek eta 4. artikuluan adierazitako entitateek laguntza eman beharko diotela jardunbide egokien aldeko bulegoari, eta xedatzen du bulegoak administrazio publiko edo/eta entitate horien bulegoetarako sarbidea eta haiek daukaten informazioa eskuratzeko bidea izango duela.

AFAk eta BFAk baiesten dute LParen 4.2 eta 7. artikuluen kariak komentatu diren akats berberak egiten direla 11. artikulua lehen paragrafoak lurralde historikoei inposatzen baitie bulegoari laguntza eman behar diotela eta bidea ematen baitie bulegoari lurralde historikoetako administrazioek edo sektore publikoko entitateek duten informazioa eskuratzeko. Halaber, adierazten dute ezen foru-erakundeek berariazko organoak sortu dituztela (etika-batzordeak eta berme-organoa) kode etikoak eta jardunbide oneko kodeak behar bezala betetzen direla zaintzeko eta ezin onartuzkoa dela EAEko Administrazioa eta haren sektore publikoko entitateetara mugatuta dagoen bulego bati informazioa emateko betebeharra ezartzea, horrela eginez gero foru-aldundien eskumen eksklusiboa inbaditu baitaiteke. Beste arrazoibide bat da informazio horren gainean egon behar den konfidentzialtasuna eta foru-ordetza ulertzen dute zentzugabekeria dela foru-kargu publiko edo foru-langile publikoen jardunbideei buruz ikertzeko edo kargu edo langile horien eginbideen gaineko gomendioak egiteko eskumenik ez duen bulego berri batek informazio hura eskuratzeko exijitzea. Foru-aldundien beste arrazoibide bat da foru-aldundiek batzar nagusien aurrean erantzuten dutela eginkizunak duten interesen gestioari buruz, eta batzar nagusiek erabaki dezaketela ikerketa-batzorde bat eratzea lurralde historikoko interes publikoko edozein gaiaren gainean egon litekeen erantzukizun politikoa ikertzeko.

Konfidentzialtasuna dela-eta, EH Bildu talde parlamentarioak alegatzen du badirela EAEko egitura instituzionalaren barruan konfidentzialtasuna bermatu behar duten hainbat entitate, hala nola Herri Kontuen Euskal Epaitegia, Arartekoa edo Datuak Babesteko Euskal Agentzia, eta haiek informazioa elkarrekin trukatzeko dutela eta erakundeek eta entitateek arteko elkarlana egiten dutela, beharrezkotzat jotzen baitute, Lurralde Historikoen Legea urratu gabe. Halaber,



esaten dute hori dela jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren xedea. Beste behin ere alegatzen du Gipuzkoako Aldundiak, Araba eta Bizkaiko aldundiek ez bezala, ez duela 11. artikuluari buruzko alegaziorik egin.

Horri dagokionez, eta supra erabili ditugun arrazoibideei jarraituz, zenbait entitateri buruz egiten den erreferentziaz ari garela, hala nola Arartekoaz, Datuak Babesteko Euskal Agentziaz eta Herri Kontuen Epaitegiak, gogora ekarri behar dugu organo horiek, zeinen aplikazio-eremua EAEn jarduten duten administrazio guztietara eta haien mendeko organismoetara zabaltzen den, ezin direla parekatu auzitan jarri den bulegoarekin, aipatu entitate horien egitura eta egin-kizunak berariazko eskumen-tituluetan jasotzen baitira.

Azterketa horren arabera, ondorioztatu behar da ezen 11. artikularen lehenengo paragrafoak, 4. artikuluari bidaltze-oharra egiten baitu, laguntzeko betebeharraren barruan sartzen dituela lurralde historikoetako Administrazioa eta horren partaidetza nagusi den edo benetako jabaria duen enpresa publikoak, organismoak, enteak, entitateak eta fundazioak, halako moduan non hausten duen Autonomia Estatutuaren 37.3.a artikuluan xedaturiko eskumenen banaketaren sistema, zeinaren arabera lurralde historikoen eskumen eskusiboa baita haien erakundeentz antolaketa, araubide eta funtzionamenduari dagokiena.

**ZAZPIGARRENA. JARDUNBIDE EGOKIEN ALDEKO ETA USTELKERIAREN KONTRAKO BULEGOA SORTZEKO LEGE-PROPOSAMENEN 15 ARTIKULUKO 2 ETA 3 APARTATUEI BURUZKO AUZIEN GAINEKO ERABAKIA.**

LParen 15. artikuluari dagokionez, bi alegazio mota daude:

1. Lehenengoak, GFAk eginak, LParen 15.2 artikuluari dagokionez hau dio: "Kontuan hartuta ezen 2. apartatuan erabiltzen den hitzez hitzekoak (Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten administrazioen eta sektore publiko instrumentala osatzen duten entitateen edozein zentrotan) ez dituela kanpoan uzten lurralde historikoen administrazioak, berriz inbaditzen ari da Autonomia Estatutuaren 37.3.a artikuluan horiei bermatzen zaien eskumen eskusiboa".

Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak ez duenez puntu honen aurkako inolako alegaziorik egiten, eta EH Bildu talde parlamentarioaren ordezkariak ere ez, GFAREN alegazioak aztertu beharko dira, zeinetan aipatzen baita ezen LParen bidez sortzen den bulegoa bertaratu ahalko dela Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten administrazioen edozein zentrotan, foru-administrazioetako zentroak barne, eta haren sektore publiko instrumentalean, eta behar beste jarduera egin ahal izango dituela datuak egiaztatzeko, dokumentuak aztertzeko eta egoki deritzen elkarrizketa pertsonal guztiak egiteko.

LParen 10. artikuluan ezarri den babesa gorabehera, -zeinak xedatzen baitu "bulegoaren jarduera beteko dela beste erakunde batzuen jarduera, hala nola Herri Kontuen Euskal Epaitegiarena, Arartekoarena eta bestelako kontrol- eta fiskalizazio-erakunde batzuen, edo, hala balitz, agintaritzaren judizialarena edo Fiskaltzaren ezertan galarazi gabe"-, ondoriozta daiteke neurritz gainekoa dela lurralde historikoetako administrazioetan erabakia hartu aurretik bertaratzeko ahalmena, lurralde historikoetako administrazioetako eskumenetako esku-sartzea baita, batez ere dagokion lurralde historikoen baimena ez dagoenean.

Aurreko guztia ez zaie behar bezala egokitzen lurralde historikoen eskumen eskusiboari, zein Lurralde Historikoen Legean onartzen diren batez ere, haiek, Bizkaiko kasuan, adibidez, arautu baitute, Interes-gatazkei eta Bateriaezintasunei buruzko azaroaren 21eko 5/2018 Foru Arauaren 38. artikuluan, zehapen-prozeduraren aurretiazko araubide bat, zeina ez datorren bat LPan xedaturikoarekin, eta, gainera, lurralde historikoen eskumen eskusiboa zabaltzen baita, Lurralde Historikoen Legearen 8.1.c artikularen bidez, administrazio-ahalera, ikuskaritza barne, eta artikuluan horren d) letraren bidez, administrazio-bideko berrikuste-ahalera, kontuan harturik ezinezkoa dela zehatzeko ahala bikoiztea egintza bera denean.

Labur esanda, LParen 15.2 artikulua ez zaio egokitzen Autonomia Estatutuan eta Lurralde Historikoen Legean ezarritako eskumenen banaketari, bulegoak aldez aurretik egin behar dituen jardueren barruan sartzen baita bertaratu ahal izatea lurralde historikoetako edozein administraziotan edo partaidetza nagusi den edo jabari eraginkorra duen enpresa publikoetan, organismoetan, enteetan, entitateetan eta fundazioetan, urratzen baititu lurralde historiei dagozkien eskumenak, zeinak haienak diren bai Autonomia Estatutuaren 37.3.a artikulua bidez, bai Lurralde Historikoen Legearen 7.a.1 artikulua bidez, bai aurrekoekin lotura duten gainerako manuen bidez.

2. Bigarrena AFA, GFA eta BFAk LParen 15.3 artikuluari buruz egindako da.

Hau alegatzen dute AFAk eta BFAk: "15. artikuluan aipatzen diren aldez aurreko jarduerak ulertu behar dira ikertzeko prozedura abiarazteko erabakia hartu aurretiko izapide gisa, zeinen artean baitago egoki deritzen dokumentazioa edo dokumentuak ematea beharrezkotzat jotzen diren datuak egiaztatzeko. Ez baititu kanpoan utzi lurralde historikoetako administrazioa eta organismoak, ente, entitate, fundazio edo partaidetza nagusi den edo jabari eraginkorra duen enpresa publikoak; alegia, informazio hori ematera behartuta dauden entitate publiko eta pribatuen artean sartu dituela aurrekoak, eta prozeduraren alderdi formal bat arautzen baitu, Autonomia Estatutuaren 37.3.a artikuluan xedaturikoa urratzen du, lurralde historikoei dago-kie-eta, hauen erakundeen antolaketa, araubideaz eta funtzionamenduz dituzten eskumenen arabera, prozeduran jarraitu behar diren izapideak arautzea. Kasu honetan ere aplikatu behar dira aurreko artikuluan egin diren kontsideroak. Esan nahi da, alegia, ezegokia dela Foru Administrazioari eta haren sektore publikoko entitateei informazioa emateko betebeharra ezartzea"

Eta hau gehitzen du GFAk: "Gauza bera gertatzen da 15.3 artikuluan 4. artikuluari egiten zaion bidaltze-oharrarekin, zeinaren arabera lurralde historikoetako foru-sektore publikoaren entitate guztiak egongo bailirateke behartuta artikuluan aipatzen den informazioa bulegoari ematera"

Eusko Jaurlaritzaren arrazoibideak berresten du LParen 6. artikulua eta LParen 4.2 artikulua esandakoa, alegia, lotura falta dela lurralde historikoen alegazioen eta eskumen-gaiaren artean.

EH Bildu talde parlamentarioaren ordezkariak ondorio hau ateratzen du: "Artikulu honetan aurkezten direnez aurreko alegazioetan erabili diren arrazoibide berberak, berresten dugu zein den jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa sortzeko lege-proposamen honen helburua eta erreferentziako entitateak: Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren, Arartekoaren eta Datuak Babesteko Euskal Agentziaren kasuan bezala, helburuak dira informazioa eta elkar-lanean jardutea, konfidentzialtasun-irizpidearen mende, Lurralde Historikoen Legean inolako urraketarik egin gabe"

Esandakoa, neurri batean, LParen 15.2 artikulua kasuan ailegatu den ondorioaren ondorena da eta LParen bidez sortu nahi den bulegoak eskaturiko informazioa emateko betebeharra ezartzen du. Beste behin ere gerta daiteke lurralde historikoen ezarritako prozeduren bikoiztasun funtzionala, zeina lehenago ere aipatu dugun, 15.3 artikulua honek berresten baitu, LParen 4. artikulua berriaz egiten duen lotura dela medio, informazioa emateko betebeharrak hori zabaltzen dela 4. artikuluan aipaturiko entitate publiko eta pribatu guztietara, lurralde historikoetakoak barne.

Arrazoibidearekin amaitzeko, esan behar dugu LParen 15.3 artikulua ez zaiola egokitzen Lurralde Historikoen Legean ezarritako eskumen-banaketari, sartzen baitu LParen bidez sortu nahi den bulegoaren aldez aurreko jardueren artean lurralde historikoetako edozein administraziok eta haren organismo, ente, entitate, fundazio eta partaidetza nagusi den edo jabari eraginkorra duen enpresa publikoek bulegoari informazioa ematea, eta horrek urratu egiten ditu lurralde historikoen eskumenak, aitortuak bai Autonomia Estatutuaren 37.3.a artikulua bidez, bai Lurralde Historikoen Legearen 7.a.1 artikulua bidez, bai aurrekoekin lotura duten gainerako manuen bidez.

ZORTZIGARREN. JARDUNBIDE EGOKIEN ALDEKO ETA USTELKERIAREN KONTRAKO BULEGOA SORTZEKO LEGE-PROPOSAMENEN 23.1.f ETA 32 ARTIKULUEI BURUZKO AUZIEN GAINEKO ERABAKIA.

LParen 23.1.f artikulua bidez, jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren arduradunak administrazioei eta entitate publikoei gomendio arrazoituak zuzendu ahalko dizkie ikerketa-prozeduraren izapidetzea amaitu ostean. Manu hori 32. artikuluan osatu behar da, zeinean honela definitzen baitira gomendioak: "Bulegoak ofizioz, nahiz 4. Artikuluan adierazitako subjektuetako edozeinek eskatuta egindako" proposamenak. Azken artikulua horrek bereizten ditu gomendioaren kontzeptua eta gomendioak proposatze aldera bulegora jo dezaketen subjektuak, baina artikulutik ezin da nahitaz ondorioztatzen ez horiek hartzaileak direla.

Arabako eta Bizkaiko aldundientzat, 23.1.f artikulua, administrazio publikoak eta entitate publikoak modu generikoan aipatzean, foru-administrazioak eta haien sektore publikoko entitateak ere sartzen ditu prozeduraren azken ebazpenaren subjektu hartzaileen artean, lurralde historikoen eskumena inbadituz, eta 32. Artikulua, bulegoaren gomendioak bakartat jotzen baititu, ez du aintzat hartzen foru-administrazioak bere berme-organoak sortzeko duten ahal.

EH Bildu talde parlamentarioak gehitzen du gomendioak ez direla bete beharrekoak eta, berez, ez dagoela eskumen-arazorik.

Eztabaidagarriak dira gomendioaren ondorio juridikoak eta baita horien izaera juridikoa ere, bai doktrinan bai jurisprudentzian. Hona hemen adibide batzuk: Europar Batasunaren zuzenbidearen iturrien tipologiaren barruan Kontseiluaren gomendioak Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 288. artikuluan xedaturiko egintza juridiko ez-lotesleak dira, baina lotesleak ez izateak ez du esan nahi hutsalak direnik juridikoki, eta horrela adierazi zuen Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 1989ko abenduaren 13ko epaian, C-322/1988, hau ebatzi zuelarik 18. epigrafean: "... epaile nazionalak aintzat hartu behar dituzte gomendioak arduratzen diren auziak ebazterakoan, batez ere gomendio haiek argibideak ematen dituztenean xedapen nazionalak interpretatzeko moduari buruz haiek aplikatze aldera, baita indar loteslea duten Batasunaren xedapenak osatzeko helburua dutenean ere".

Beste adibide bat: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean xedaturiko Konferentzia Sektorialek emaniko gomendioak, zeinek behartzen baitituzte konferentzietako ki-deak, kontsulta egin zaien auzi batean gomendiotik urruntzen direnean, urruntze hori arrazoitza.

Amaitzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak egin zuen gogoeta (2011ko maiatzaren 20ko 366/2011 epaia, 738/2009 gomendioa), hainbat gomendio sartzen zituen Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Defendatzaileak emaniko 30/3/2009 ebazpenaz, non aztertzen baitzen defendatzailearen ebazpena egintza administratiboa zen ala ez eta egokia zen ala ez administrazioarekiko auziaren prozesuan presupuestotzat hartzeko.

Batzorde honek erakunde erkideek edo EAE osatzen duten lurralde historikoetako erakundeek autonomia- edo foru-eskumenen titulartasunaz egiten dizkioten auziak bakarrik ebatzi behar ditu, baita batzuen eta besteen arteko organo betearazleen arteko eskumen-auziak ere, eta ezin sar daiteke gomendioen izaera eta ondorio juridikoak ebaztera, zeren hori, esan bezala, eztabaidagai den eta ez duen tratamendu juridiko bateraturik.

Horiek horrela, manu horiei buruzko ondorioak nahitaz lotu behar ditugu LParen 1.2 eta 4.2 artikulua direla-eta egindako ondorioekin, halako moldez non, batetik, berariaz ez sartzeak 23.1.f eta 32. artikuluetan lurralde historikoen mendeko erakunde eta elkarteak gomendioen subjektu hartzaileen artean eta, bestetik, ulertzeak ezen paragrafo honen hasieran aipaturiko artikuluek urratzen dutela Estatutuaren eskumen-banaketa, bidea ematen dute ulertzeko haien aplikazio-eremutik kanpo geratzen direla lurralde historikoak, halako moduan non onartzeak bulegoak baduela gomendioak emateko ahal ez dion eragiten beste organo batzuek ere gomendioak emateko ahal izateari, betiere nor bere jardura-eremuaren barruan ari delarik.

BEDERATZIGARRENA. JARDUNBIDE EGOKIEN ALDEKO ETA USTELKERIAREN KONTRAKO BULEGOA SORTZEKO LEGE-PROPOSAMENEN 36.1.g ARTIKULUARI BURUZKO AUZIEN GAINEKO ERABAKIA.

Arabako eta Bizkaiko aldundiek LParen 36.1.g artikulua errekurritzen dute, LPak sartzen duela, jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako EAEko bulegoaren eginkizunen artean, Jardueren Erregistroa kudeatzea, Autonomia Erkidegoaren Administrazioa mugatu gabe.

EH Bildu talde parlamentarioak bere arrazoibideetan esaten du ezen bulegoaren eginkizuna dela lurralde-erregistroetako informazioa bateratzea, lurraldeen eskumen propioa bereganatu gabe.

Manu horri erantzuteko, 36. artikulua hitzez hitzeko edukitik abiatu behar dugu berriz ere, edukiak ez du-eta esaten zein administrazioari buruz ari den eta, bestetik, Jardueren Erregistroa kudeatzen duela esaten du, ez besterik, zehaztu barik zer eginkizun sartzen diren jarduera horren barruan.

Gure azterketa, beste behin ere, lotu behar dugu LParen 1.2 eta 4.2 artikuluen gainean egindako azterketaz atera ditugun ondorioekin, baita 6.d artikulua, zeina adierazitzat jotzen baitugu, egindako gogoetarekin ere.

Materia hau, Euskal Autonomia Erkidegoaren Autonomia Estatutuaren 37.3.a artikulua arabera, lurralde historikoen eskumena da eta haiei dagokie materia arautzeko eskumena.

Arabari dagokionez, foru-kargu publikoen jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauak indargabetzen ditu 7/2008 Foru Araua, otsailaren 18koa, Arabako Foru Aldundiko Jardueren eta Ondasun Interesen Erregistrotik arautzen dituen, eta 6/2010 Foru Araua, uztailaren 12koa, hura aldatu zuena. Haren helburua da foru-kargu publikoei aplikatu behar zaien araubide juridikoa erregulatzea eta 33. artikuluan xedatzen du Aldundiaren Idazkaritza Orokorreko Zerbitzuaren ardura izango dela bateraezintasun-araubidearen eta foru-arau honetan kargu publikoei ezarritako betebeharren kudeaketa administratiboa eta organo horri dagokiola Foru Kargu Publikodunen Jardueren Erregistroa eta Foru Kargu Publikodunen Ondasun eta Interesen Erregistroa kudeatzea.

Bizkaiari dagokionez, Interes-gatazkei eta Bateraezintasunei buruzko azaroaren 21eko 5/2018 Foru Arauaren helburua da foru-kargu publiko izendatu diren pertsonen estatutua arautzea, eta, 29. artikuluan, xedatzen du erabateko autonomia funtzionalarekin jardungo duen berme-organoa bat sortzea, zeinak, beste batzuen artean, eginkizun izango dituen Foru-kargu publikodunen Jardueren Erregistroa eta Ondasunen eta Interesen Erregistroa kudeatzea eta erregistrootan dauden datuen nahiz dokumentuen zaintza, segurtasunaz eta egoera onaz arduratzea.

Azkenik, 2011ko abenduaren 19ko Gipuzkoako Lurralde Historikoaren foru-sektore publikoaren eremuan jardueren erregistroa eta ondasun eta interesen erregistroa arautzeko 4/2011 Foru Arauaren xedea da, hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren foru-sektore publikoa osatzen duten gainerako entitateetako Jardueren Erregistroa eta Interesen Erregistroa arautzea.

Foru-arau hau osatu berri du Gobernu Onari buruzko foru-gobernantza publikoaren esparruko martxoaren 11ko 4/2019 Foru Arauak, zeinak, 31. artikuluan, xedatzen duen zer informazio argitaratu behar den abenduaren 19ko 4/2011 FAren aplikazio-eremuan sartuta dauden foru-kargu publikoei buruz.

Horiek horrela, ondorioztatu behar da ezen LParen 36.1.g artikulua, ez baititu berriaz sartzen foru-erakundeak bere jardura-eremu subjektiboaren barruan, errespetatzen duela Estatuaren eskumen-banaketa, betiere interpretatzen delarik LParen 6. artikuluko b, c eta d) letrei edo testu artikuludun horren 23.1.f eta 32. artikuluei buruz azaldutako termino berberetan.

## HAMARGARRENA. JARDUNBIDE EGOKIEN ALDEKO ETA USTELKERIAREN KONTRAKO BULEGOA SORTZEKO LEGE-PROPOSAMENEN 47. ARTIKULUARI BURUZKO AUZIEN GAINEKO ERABAKIA.

PLaren 47. artikulua erantzukizunaren eremu subjektiboa ezartzen du, xedatzen baitu arau-hausteen erantzule direla, baita ez-betetze soilaren mailan ere, lege honetan tipifikatutako egite edo ez-egiteetan erortzen diren agintariak, zuzendaritza-kargudunak eta 4. artikuluan adierazitako entitateen zerbitzuetako langileak.

Hiru foru-erakundeek ustez, PLaren 47. artikulua Autonomia Estatutuaren 37.3.a artikulua urratzen du, ez baititu bere aplikazio-eremutik kanpo uzten foru-administrazioak eta haien sektore publikoko entitateak. Izan ere, Estatutuaren artikulua horren arabera, foru-organoen eskumen eskusiboa da haien erakundeek antolaketa, araubidea eta funtzionamendua.

EH Bildu talde parlamentarioak, baina, ailegatzen du EAEk eskumen eskusiboa duela sektore publikoa antolatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoaren Autonomia Estatutuaren 10.24 eta 11.b artikuluen arabera, eta eskumen horren esparruan datzala EAEren erantzukizun zuzena dela sektore publikoaren funtzionamendua hobetzeko eta sendotzeko bitartekoak jartzea, hartarako arauak zein bestelako instrukzioak erabiliz. Halaber, adierazten du ustelkeriaren kontrako bulegoaren xedea dela jardunbide egokien aurkako jokabideei aurrea hartzea eta haiek saihestea eta zehatzeko neurriak hartu eta ezarriko direla arau-haustea direla-eta, "lurralde historikoekin eta gainerako erakundeekin elkarlanean eta lurralde bakoitzaren eskumenak eta arauak errespetatuz".

Lehendabizi, adierazi behar dugu ezen auzitan jarritako manua irakurtzetik ez dela ondorioztatzen ez EH Bildu talde parlamentarioak aipatzen duen lurralde historikoen elkarlenerako beharra eta ez talde horrek aipatzen duen lurralde bakoitzaren eskumen eta arauetako errespetua ere. Alderantziz: 47. artikulua, zeina sartuta baitago zehatzeko ahalmenari buruz VI. tituluaren mugatzen du lege honen babesean egindako arau-hausteen gaineko erantzukizun subjektiboa, eta aplikazio-eremuaren barruan sartzen ditu foru-administrazioak eta haien sektore publikoko entitateak.

Abiapuntutzat jo behar dugu ezen bai zehatzeko araubidea eta bai administrazio-prozedura direla materia baten konfigurazio juridiko baten osagai instrumentalak eta, ondorioz, lotura bat egon behar dela zehatzeko araubidearen gaineko eskumenaren eta dagokion materiari buruz daukan eskumenaren artean, betiere Estatuaren eskumenak administrazio publikoaren araubide juridikoen oinarriari buruz eta administrazio-prozedura erkidegoari buruz ezartzen dituzten mugen barruan.

Hori horrela, hizpidera ekarri behar dugu Konstituzio Auzitegiaren doktrina, irailaren 28ko 148/2011 Epaian jasoa (11. fundamentu juridikoa), zeinaren arabera zehatzeko ahala ez den eskumen-titulu autonomoa (Konstituzio Auzitegiaren 156/1985 Epaia, azaroaren 15ekoa, 7. fundamentu juridikoa) eta "autonomia-erkidegoek zehatzeko ahala dute beren eskumeneko materia substantiboetan, ezarri edo modulatu ditzaketelarik tipo eta zehapenik Estatuaren arauen edo oinarriko printzipioen esparruan, betiere haien xedapenak egokitzen zaizkiela zuzenbide administratibo zehatzaileak ezarritako bermeei (Konstituzio Auzitegiaren 227/1988 Epaia, uztailaren 9koa, 29. fundamentu juridikoa).

Zehatzeko araubidea eta materia substantiboa lotzen dituen doktrinari jarraituz, berretsi dezakegu ezen PLaren 47. artikulua, bulegoaren zehatzeko ahalaren barruan sartzen baititu lurralde historikoetako administrazioetako eta haien organismo, ente, entitate, fundazio eta partaidetza nagusi den edo jabari eraginkorra duen enpresa publikoetako agintariak, zuzendariek edo langileek egindako arau-haustea, hausten duela 37.3.a artikuluetako eskumen-banaketa sistematikoa, zeinaren arabera lurralde historikoen eskumen eskusiboa baita haien erakundeek antolaketa, araubidea eta funtzionamendua.

## EPAITZA

Esandako guztia aintzat hartuta, Ebazpen Batzordearen Osoko Bilkurak

## HAU EBATZI DU

Lehenengoa. Ez du interpretatzeko eraginkortasun juridikorik atarikoak aipatzeak "Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten erakunde guztiak" sartzen direla jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren jarduera-esparruaren barruan.

Bigarrena. Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa sortzeko lege-proposamenaren 5.e eta 7.1.d artikulua egokitzen zaizkio Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eta lurralde historikoen foru-organoen artean Autonomia Estatutan xedatzen den eskumen-banaketari.

Hirugarrena. Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa sortzeko lege-proposamenaren 6.b, c eta d); 23.1.f; 32, eta 36.1.g artikulua egokitzen zaizkio Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eta lurralde historikoen foru-organoen artean Autonomia Estatutan xedatzen den eskumen-banaketari, baldin eta interpretatzen badira hirugarren, zortzigarren eta bederatzigarren fundamentu juridikoetako terminoen arabera.

Laugarrena. Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa sortzeko lege-proposamenaren 1.2; 4.2, eta, haiekiko lotura dela-eta, zioen azalpeneko 3. paragrafoa; 7.1.a, b eta c); 9.1; 11, lehen paragrafoa; 15.2 eta 3, eta 47. artikulua ez zaizkio egokitzen Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eta lurralde historikoen foru-organoen artean Autonomia Estatutan xedatzen den eskumen-banaketari.

Erabaki hau alderdiei jakinaraziko zaie eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, baita Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako aldizkari ofizialetan ere.

Erantsitakoa jatorrizkoarekin bat dator (beharrezko balitz jatorrizkora jotzen dut). Era berean, honakoa ematen dut dagozkion ondorioak izan ditzan.

Bilbon, 2019ko uztailaren 18an

*Ebazpen Batzordeko Idazkaria*  
**BEGOÑA BASARRATE AGUIRRE**